

**ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN
PLEGUA, ZABORTEGIETARA ETA
TRATAMENDU PLANTETARA SASIETAKO
MANKOMUNITATEKO HIRI-HONDAKINEN
GARRAIO-ZERBITZUAREN KONTRATUA
ERAENDU BEHAR DUENA**

AURKIBIDEA

SARRERA	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK	1
1 KONTRATUAREN HELBURUA	1
2 KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA	1
3 ENTITATE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA	2
4 KONTRATU-EPEAK	2
5 LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA	2
6 ORDAINTZEKO MODUA	3
7 PREZIOAK BERRIKUSTEA	4
8 KONTRATU-DOKUMENTUAK ETA KONTRAESANAREN KLAUSULA OROKORRA	4
9 KONTRATATZAILEAREN PROFILA	4
10 PUBLIZITATEA	4
11 JURISDIKZIOA	5
II. KAPITULUA: KONTRATUA ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA MODUA	¡ERROR!
MARCADOR NO DEFINIDO.	
12 ADJUDIKAZIO-PROZEDURA ETA -MODUA	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
13 GAITASUN BALDINTZAK	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
14 PROPOSAMENEN AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
DEFINIDO.	
15 DOKUMENTAZIOAK BETE BEHARREKO BALDINTZAK	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
DEFINIDO.	
16 PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
17 BEHIN-BEHINEKO BERMEAK ERATZEA	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
18 AURKEZTUTAKO ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
NO DEFINIDO.	

- 19 PROPOSAMEN NEURRIGABEAK EDO ANORMALAK ¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.**
- 20 PROPOSAMENAK IREKITZEA, ESKAINTZAK SAILKATZEA ETA KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA..... ¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.**
- 20.1 . ESKAINTZEN SAILKAPENA. **¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.**
- 20.2 . ESLEIPENA..... **¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.**
- 20.3 . ESLEIPENAREN JAKINARAZPENA..... **¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.**
- 20.4 . ESLEIPENAREN EBAZPENA..... **¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.**
- 20.5 DOKUMENTAZIOAREN ZAINZA **¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.**
- 21 ADJUDIKAZIODUNARI ESKATUTAKO DOKUMENTUAK..... ¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.**
- 22 BEHIN BETIKO BERMEA ¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.**
- 23 KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA ¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.**
- 23.1 KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA. **¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.**
- 23.2 FORMALIZAZIO FALTAREN ERAGINAK **¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.**
- III. KAPITULUA: ALDERDIEN ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK ¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.**
- 24 KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK..... ¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.**
- 24.1 KONTRAPRESTAZIOAK JASOTZEKO ESKUBIDEA. **¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.**
- 24.2 KONTRATUA LAGATZEA. **¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.**
- 24.3 AZPIKONTRATAZIOA. **¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.**
- 25 KONTRATISTAREN OBLIGAZIOAK ¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.**
- 25.1 BEHARREZKO LANGILEAK. **¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.**
- 25.2 KONFIDENTZIALTASUNA..... **¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.**
- 26 KONTRATAZIO-ORGANOAREN ESKUBIDEAK (GHK-REN ADMINISTRAZIO-KONTSEILUA) ¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.**
- 26.1 KONTRATUAREN EGOKITZAPENA. **¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.**
- 26.2 EZARRI BEHARREKO ARAUDIAN ONARTUTAKO ESKUBIDEAK..... **¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.**
- 27 KONTRATAZIO-ORGANOAREN OBLIGAZIOAK..... ¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.**

IV. KAPITULUA: KONTRATUAREN EXEKUZIOAREN GARAPENA ETA JARRAIPENA

.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
28 ZERBITZUAK EMATEN HASTEA.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
29 LAN-PROGRAMA.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
30 SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA LANEAN	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
31 LANEN ZUZENDARITZA.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
32 KONTRATISTAREN ORDEZKARIA	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
32.1 IZENDAPENA.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
32.2 FUNTZIOAK.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
33 ZERBITZUAK EXEKUTATZEKO ERREGIMENA.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
34 KONTRATISTAREN BALIABIDE MATERIALAK ETA PERTSONALAK	¡ERROR!
MARCADOR NO DEFINIDO.	
35 ARRISKUA ETA MENTUARE ZERBITZUAK GAUZATZERAKOAN	¡ERROR! MARCADOR
NO DEFINIDO.	
36 ZERBITZUAK GAUZATZERAKOAN DESADOSTASUNAK EBAZTEA.....	¡ERROR!
MARCADOR NO DEFINIDO.	
37 DOKUMENTAZIOA KONTROLATZEA ETA ENTREGATZEA.....	¡ERROR! MARCADOR NO
DEFINIDO.	
37.1 DOKUMENTAZIOA KONTROLATZEA.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
37.2 DOKUMENTAZIOA ENTREGATZEA.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
38 BERME-EPEA.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
39 BERME-EPEAREN AZKENEKO EGIAZTAGIRIA	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
40 KONTRATUA HARTZEA.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
KAPITULUA DIZIPLINA-ARAUBIDEA.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
41 EZ BETETZEA.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
41.1 EZ-BETETZE OSO LARRIA.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
41.2 EZ-BETETZE LARRIAK.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
41.3 EZ-BETETZE ARINAK.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.

42	ZIGORRAK.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
42.1	ZIGORREN ERREGIMENA.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
42.2	ZIGORREN MAILAKETA.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
42.3	ZIGORRAK ETA HERTSAPEN-IZUNAK EGUNERATZEA.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
VI. KAPITULUA: KONTRATUA AMAITZEA.....		¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
43	KONTRATUA AMAITZEA.	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
43.1	KONTRATUA BETETZEA.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
43.2	KONTRATUA SUNTSIARAZTEA.....	¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
I. ERANSKINA. ARDURAPEKO ADIERAPENAREN EREDUA		¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
II. ERANSKINA PROPOSAMENA GHK-REN SARRERA-ERREGISTROAN ENTREGATZEKO EREDUA.....		¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
III. ERANSKINA. ATZERRIKO ENPRESEN ADIERAZPENA..		¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
IV. ERANSKINA. JAKINARAZPENAK EGITEKO POSTA ELEKTRONIKOAK.....		¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.
V. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA.....		¡ERROR! MARCADOR NO DEFINIDO.

I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

Plegu honetan jasotzen dira Sasetako Mankomunitateen hondakinak zabortegietara eta tratamendu plantetara garraiatzeko zerbitzuaren kontratazio-prozedura eraenduko dituzten administrazio-klausula partikularrak. Kontratazio-prozedura hori GHK merkataritza-sozietateak adjudikatuko du, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren kontura eta horren aginduz.

1 KONTRATUAREN HELBURUA

Kontratu honen helburua da hiri-hondakinak Sasetako Mankomunitatetik zabortegietara eta tratamendu plantetara garraiatzea, biohondakina eta errefusa desberdinduta. Errefusaren kasuan, hondakinak deuseztatze zentroetaraino garraiatuko dira, horiek Lapatx (Azpeitia), Sasetako (Beasain) zabortegietan eta Zubietako (GHKZ) insatrazioetan baitaude. Modu osagarri gisa, aukera uzten da Gipuzkoa barnean zein kanpoan destinoak finkatzeko. Horretarako, kontratistak bere zerbitzua egokitu beharko du, Baldintza Administratibo Partikularren Agiri honetan eta Ezaugarri Teknikoen Agirian ezarritako baldintzetan.

Biohondakinaren garraioaren kasuan, hondakinak Lapatx (Azpeitia) eta Epeleko (Bergara) konpostatze plantetaraino garraiatuko dira -GHKrenak dira biak-, eta baita Tecnología Industrial de Reciclaje, S.L.k Funesen (Nafarroa) daukan plantaraino, Lapurdiko Itsasun dagoen Loreki plantaraino, eta HTN Biogas-en plantaraino (Caparroso, Nafarroa), kanpo plantak hirurak, Gipuzkoa barneko zein kanpoko beste edozein tratamendu-puntutaraino bezalaxe, betiere esleitzen diren destinoz tokien arabera. Enpresek egokitu egin beharko dute GHKren beharretara eta izan daitezkeen destino horietara, GHK-k adierazten dienaren arabera, honentzako kostu gehigarririk gabe.

Egin beharreko zerbitzua Baldintza Teknikoen Agiriko 2. klausulan deskribatzen dena da.

2 KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratu honek izaera pribatua du, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duenaren (aurrerantzean SPKLTB), 20.1. artikuluan xedatutakoari jarraiki; eta Baldintza Administratibo Berezien Plegu honetan (aurrerantzean, BABPn edo Pleguan) eta haren eranskin guztietan, Baldintza Teknikoen Pleguan zein kontratuaren gainerako dokumentuetan xedatutakoaren arabera eraenduko da, 8. Klausulan ezarritako baldintzei jarraiki.

Prestatzeari, adjudikatzeari, ondorioei eta iraungitzeari dagokionez, adierazi den moduan, kontratua arautuko dute Baldintza Administratibo Berezien Plegu honek, Baldintza Teknikoen Pleguak, GHKren Kontratazioko Barne Arauek eta, horietan aurreikusten ez den gaietan, zuzenbide pribatuko arauak.

Halaber, Sektore Publikoko Kontratazioei buruzko Legearen Testu Bateratua eta Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Araudi Orokorra (aurrerantzean, HAKLAO) aplikagarriak izango dira Plegu honek araudi horiei zuzenean erreferentzia egiten dienean.

Kontratuaren edozein baldintza, edota adostutakoa egikaritzera ezarri daitekeen beste edozein kontratuzko dokumentu ez ezagutzeak ez du esan nahiko esleipendunak horiek bete behar ez dituenik.

3 ENTITATE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA

Entitate kontratatzailea GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA S.A.U da (aurrerantzean GHK).

Kontratu honen kontratazio-organoa GHKren Administrazio Kontseilua da, zeinak, dagokionean, eta aplikatu beharreko zuzenbide pribatuko arauen arabera, jarduketa zehatzak gauzatzeko egokiak deritzon pertsonak berariaz ahaldundu ahalko dituen.

4 KONTRATU-EPEAK

Kontratu gauzatzeko epea BI URTEkoa izango da, kontratu formalizatzen denetik aurrera.

GHK-k kontratuaren luzapen 1 erabaki ahal izango du, gehienez urtebeteko iraupena izango duena, SPKLTBaren 23. artikularen arabera.

5 LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratu honen lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren kopurua da _____ (BEZ gabe), 2 urteri gehi luzapeneko beste urte bateri dagokiona.

Urteko bakoitzari dagokion oinarritzko lizitazio aurrekontua BERREHUN ETA HIRUROGEITA ZORTZI MILA ZORTZIREHUN EUROKOA (268.800 €) izango da; kopuru hori ateratzeko, 1., 2., 3. eta 4. prezioetan zenbatetsitako urteko kantitateak gehienezko lizitazio prezio unitarioaz biderkatzen dira, klausula honetan jasotako tauletan eta baldintza-agiri honetako 18. klausulako hirugarren irizpidean ezartzen den moduan.

Lizitazio honen oinarritzko aurrekontua izango da 1, 2, 3 eta 4 prezioetan balioetsitako kopuruak lizitazioaren aleko prezio maximoarekin biderkatzearen emaitza, plegu honen 18. klausularen hirugarren irizpidean jasotako tauletan ezartzen den bezala.

Kontratu honen prezioa adjudikaziodunaren eskaintza ekonomikoan zehaztutakoa izango da. Edonola ere, kontratuaren prezioak ezingo du lizitazioaren oinarritzko aurrekontua (BEZ gabe) gainditu. Zenbateko hori gainditzen duten proposamenak baztertu egingo dira.

Kontratuko prezioaren barne egongo dira aplikagarriak diren zerga, tasa eta kanon guztiak, baita kontratudunak Plegu honetan eta kontratuaren gainerako dokumentuetan aurreikusitako obligazioak betetzearen ondorioz sortutako gastu guztiak ere.

Lizitatzailerak, garraiatutako tonako prezioaren eskaintza egiterakoan, gastu kontzeptu guztiak eta etekin industrialak ere kontuan hartuko dituzte prezioan, ezarri beharreko BEZa izan ezik, hori modu berezian zehaztuko baita.

Eskaini beharreko aleko prezioaren lizitazio mota ezin izango da izan ondoko taula honetan xehatzen den aleko prezio maximo bakoitzaren kopurua, BEZ kanpo, baino handiagoa:

HONDAKIN MOTA	ERREFUSA	BIOHONDAKINA			ERREFUSA+BIOHONDAKINA		
DESTINOA	1. PREZIOA	2. PREZIOA	3. PREZIOA	4. PREZIOA	5. PREZIOA	6. PREZIOA	7. PREZIOA
	GIPUZKOAKO ZABORTEGI ETA PLANTAK	LAPATX,EPELE ETA GIPUZKOAKO PLANTAK	CAPARROSO	FUNES	ALDAKORRA 100 KM ARTE	ALDAKORRA 200 KM ARTE	ALDAKORRA 400 KM ARTE
GEHIENEZKO PREZIO UNITARIO	9€/tn/km	9€/tn/km	14€/tn/km	14€/tn/km	0,22€/tn /km	0,15€/tn/km	0,14€/tn/km

6 ORDAINTZEKO MODUA.

Preziora hilero ordainduko da, garraiatutako tona kopuruaren arabera.

Hilabete bakoitzaren amaieran, eta hurrengo hilabeteko lehenengo 7 lanegunen barne, adjudikaziodunak bidaliko du, GHK-k eskatutako protokoloa betetzeko, aurreko hilabetean garraiatutako tonen dagokien faktura eta emandako zerbitzuen inguruko gainerako dokumentazio xehatua. Kontuan hartu beharreko tonak izango dira zabortegiko edo tratamendu-instalazioko sarrerako baskularen tiketaren bidez justifikatzen direnak, zeinak adjudikaziodunak erantsiko dituen fakturarekin batera.

Ordainketa 60 egunera egingo da, transferentzia bidez, GHK-k ados dagoela adierazi ondoren igorritako fakturarekin.

7 PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratua gauzatuko da kontratistaren arriskuz eta menturaz, eta prezioak berrikusteko aukerarik ez da izango.

8 KONTRATU-DOKUMENTUAK ETA KONTRAESANAREN KLAUSULA OROKORRA

Kontratu izaera izango dute eta, beraz, alderdientzat nahitaez betebeharrekoak izango dira, jarraian zehazten diren dokumentuak eta dagozkien eranskinak.

1. Baldintza Administratibo Berezien Plegu hau.
2. Baldintza Teknikoen Plegua, Administrazio Klausula Partikularren Pleguarekin kontraesanean ez dagoen guztian.
3. Kontratua formalizatzeko dokumentua eta gero sinatuko diren kontratua garatzeko dokumentuak.
4. Adjudikaziodunak aurkeztutako eskaintza.

Adjudikaziodunak dokumentu horiek sinatu beharko ditu, adostasuna adierazteko, kontratua formalizatzeko ekitaldian.

Dokumentuen terminoetan kontraesanen bat badago, elkarrekin lotura duten dokumentuak interpretatzeko kontuan hartuko da klausula honetan zein ordenatan zerrendatzen diren, eta lehentasuna izango du zerrendan besteen aurretik agertzen denak.

9 KONTRATATZAILEAREN PROFILA

Gardentasuna eta kontratu-jarduerari buruzko informaziorako sarbide publikoa segurtatzeko, hargatik eragotzi gabe SPKLTBk agintzen duen kasuetan gaitu beharreko beste publizitate-bide batzuen erabilera, Interneteko atarian ikusi ahal izango dute kontratatzailearen profila lizitatzailleek: <http://www.ghk.eus>

10 PUBLIZITATEA

Lizitazio hau eta kontratuaren esleipena Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE), Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta GHKren kontratatzailearen profilean argitaratuko dira.

GHK-k ordaindu behar dituen publizitate gastuen zenbatekoa esleipendunaren kontura izango da, HAKLEOren 75. artikulua ezartzen duen moduan. Kontratua formalizatu

aurretik, esleipendunak aurkeztu egin beharko du aipatutako publizitate gastuak ordaindu dituelako frogagiria.

11 JURISDIKZIOA

Administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioak izango du kontratuaren prestakuntza eta esleipenaren inguruan sor daitezkeen arazoak bideratzeko eskumena, eta ordena jurisdikzional zibilak izango du kontratuaren ondorio, betearazpen eta iraungitzearen inguruan sor daitezkeen auziak ebazteko eskumena, SPKLTBren 21. artikulua ezartzen duen moduan.

II. KAPITULUA: KONTRATUA ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA

12 ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA

Kontratu hau prozedura ireki bidez esleituko da, irizpide aniztasunez, eta tramitazio arrunta emango zaio, Kontratatorako Barne Arauekin eta SPKLTBren 157. artikuluetan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat.

13 LIZITATZAILEENTZAT ESKURAGARRI DAGOEN DOKUMENTAZIO ETA INFORMAZIOA

Kontratazio-organoak prozedura honi buruzko dokumentazio guztia jarriko du eskuragarri lizitatzailleentzat, zehazki dokumentu hauek:

- Baldintza Administratibo Partikularren Agiria eta horri dagozkion eranskinak.
- Ezaugarri Tekniko Partikularren Agiria.

GHKren bulegoetan egongo da eskuragarri lizitatzailleentzako dokumentazio hori, Hernaniko Ibaiondo poligonoko 27. zenbakian, 3. solairuan.

14 GAITASUN BALDINTZAK

1. GHKrekin kontratua egin ahal izango dute, bai modu indibidualean bai elkarrekin, pertsona natural edo juridikoez, bai espainiarrek bai atzerritarrek ere, jarduteko gaitasun osoa badute eta kontratatzeke debekurik ez badute.

Ezin izango dute lizitazioan parte hartu zehaztasun teknikoak edo kontratua prestatzeko agiriak egiten jardun duten enpresek, baldin eta parte-hartze horrek lehia askea muga badezake edo pribilegiozko tratua eragin badezake gainerako enpresa lizitatzailleekiko.

2. Enpresaburuek, halaber, kontratuaren objektu den jarduera edo prestazioa gauzatzeko beharrezkoa den enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute, hala badagokio.

Pertsona juridikoak kontratuaren esleipendunak izango dira, baldin eta kontratuko prestazioak, Estatutu edo fundazio-arauek xedatutakoari jarraiki, sartzen badira pertsona juridikoaren helburu edo jarduera-esparruan.

3. Espainiakoak ez diren Europar Batasuneko enpresek GHKrekin kontratatzeko gaitasuna izango dute, baldin eta enpresak ezarrita dauden estatuko legeen arabera dena delako prestazioa gauzatzeko gaikuntza badute.

Enpresa horien jatorrizko estatuetako legediak lurralde horretan zerbitzuak eskaintzeko baimen berezi bat edo erakunde jakin bateko kide izatea eskatzen badu, baldintza hori betetzen dutela frogatu beharko dute lizitatzailleek.

Europar Batasuneko kide ez diren estatuetako pertsona fisiko edo juridikoek Espainiako Diplomazia Misio Iraunkorren txosten baten bitartez egiaztatu beharko dute enpresaren jatorrizko estatuak aukera ematen diela Espainiako enpresei hango administrazioarekin eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 3. artikuluan aipatutako sektore publikoko kideko ente, organismo edo erakundeekin egiten diren kontratazioetan funtsean modu bertsuan parte hartzeko.

4. GHKrekin kontratatu ahal izango dute horretarako aldi baterako eratzen diren enpresari baltzuek. ABEEko kideek bete egin beharko dituzte kaudimen baldintzak, Agiri honetako 16.3 klausulan adierazten diren baldintzetan, eta denek izango dute kontratua betetzearen gaineko erantzukizun solidarioa, kontratua indarrean den denbora osoan zehar.

Aldi baterako sortutako enpresari elkarteak eskritura publiko bidez formalizatu beharrik ez da izango, harik eta kontratuaren esleipena elkartearen alde egiten den arte. Horrelakoetan, SPKLTBko 59. artikuluan xedatutakoa da aplikagarria. Dena den enpresari horiek, eskaintza aurkezten dutenetik aurrera, GHKren aurrean obligatuta egongo dira, solidarioki, lizitazio honetatik eta kontratutik -iraungitzen den arte-ondorioztatzen diren obligazio guztiak betetzera, eta pertsona bat izendatu beharko dute, lizitazioan eta kontratua gauzatzeko den bitartean ordezkari edo ahaldun bakar gisa aritu dadin, behar besteko ahalmenez bai eskubideak baliatzeko bai kontratua iraungi arte sortzen diren obligazioak betetzeko.

5. Lizitazioan parte hartzen duten enpresa guztiek beteta aurkeztu beharko dute Agiri honek daraman **I. eranskina**.

15 KONTSULTAK ETA ARGIBIDE ESKEAK

Eskaintzak aurkezteko epean zehar, GHK-k erantzun egingo die lizitatuzaileek idatziz egiten dizkieten galderari eta argibide eskeei.

Kontsultak idatziz bidaliko zaizkio GHKri, lizitazio iragarkian dauden posta edo fax helbideetara. Lizitatuzaileek, bere idazkian, harremanetarako pertsona bat, helbidea, posta elektronikoa eta faxa adieraziko dituzte.

Erantzunak kontratatuzailearen profilean aterako dira argitara, hain zuzen interesdun guztiek ezagutu ahal izan ditzaten, eta banaka jakinaraziko zaizkie, posta edo fax bidez, kontsulta bat idatziz egindako lizitatuzaileei.

16 PROPOSAMENAK AURKEZTEA

16.1 Proposamenak aurkezteko lekua eta epea

Proposamenak GHKren bulegoetan aurkeztuko dira -Ibaiondo poligonoa, 27, 3. solairua, Hernani-. Eta lizitazio honetan parte hartzeko, enpresen eskaintzak bulego horietan jaso beharko dira; horretarako epeak, betiere, lizitazioaren iragarkia Europar Batasunaren Egunkari Ofizialera bidali ondoren gutxienez 40 egun* hartuko ditu, eta BOEn argitaratu eta hurrengo 15 egunak, SPKLTBren 159. artikulua dioena oinarri harturik.¹

1. Adierazi moduan, lizitazio hau DOUE, BOE eta GAOen iragartzeaz gain, kontratazio-organoaren kontratatuzailearen profilean argitaratuko da; horretara iristeko atari informatiko edo web orria honakoa izango da: <http://www.ghk.eus>. Gune horretan bertan aukera izango da bai baldintza administratiboen agiriak bai ezaugarri teknikoaren agiria eskuratzeko.
2. Dokumentazioa postaz bidaltzen denean, enpresariak justifikatu egin beharko du zer egun eta ordutan egin duen bidalketa posta bulegoan, eta kontratazio-organoari adierazi beharko dio, egun horretan bertan telex, fax edo telegrama bat jarritz, eskaintza bidali duela. **Dokumentazioaren bidalketa zein kontratazio-organoari egin beharreko bidalketaren adierazpena** iragarpenean finkatutako aurkezpen epea amaitzeko **data eta ordua baino lehen egin beharko dira**.
 - Eskaintzaren aurkezpena posta elektronikoa bidez ere iragarri ahal izango da, baina kasu horretan iragarkiaren bidalketa baliozkoa izateko ezinbesteko baldintza batzuk egongo dira, hala nola: erasota egotea eskaintza bidali eta jaso dela, horren datekin eta komunikazioen eduki osoarekin batera, eta igorlea eta hartzailea modu sinesgarri batean egotea identifikatuta. Horrelako

¹ *Proposamenak aurkezteko epe orokorra, 52 eguneko, bost egunez murriztuko da, zeren eta aukera ematen baita baldintza-agiri eta dokumentazio osagarria bitarteko elektronikoa bidez eskuratzeko, eta horri erantsi behar zazpi eguneko murrizketa bat, iragarkiak baliabide elektronikoa, informatikoa edo telematikoa bidez prestatu eta igorriko direlako, SPKLTBren 159.1 artikulua ezartzen duenarekin bat.

kasuetan, kopia inprimatu bat atera eta erregistratu egingo da, ondoren espedientean jasotzearen.

- Aipatutako baldintza biak betetzen ez badira ez da onartuko proposamena, iragarkian adierazten den epea amaitu ondorengo data eta orduan jasotzen badu GHK-k. Dena den, aipatu datatik hamar (10) egun natural igarotzen badira dokumentazioa jasotzeke, ez da inolaz ere onartuko proposamena, HAKLEOren 80.4 artikulua ezartzen duen moduan.
3. Parte hartzeko eskaera kontratazio-organoak adierazitako bulegoetan aurkeztu denean, kontratazio-organoak erregistratu egingo du parte hartzeko eskaera, eta horren kopia zigilatu bat itzuliko dio lizitatuari, aurkezte horren frogagiri gisa; kopia horretan lizitatuaren izena, kontratuaren xedea eta proposamena aurkeztu den eguna eta ordua jasoko dira, **II. eranskinean** aurkeztutako ereduaren arabera.

16.2 Dokumentaziorako baldintzak

Lizitatuak aurkeztu duten dokumentazioak hainbat baldintza bete behar ditu, honakoak:

1. Proposamenak aurkeztuz gero, lizitatuak onartu egiten ditu, baldintzarik gabe, Agiri honetako eta kontratu-izaera duten beste dokumentuetako klausulak, inolako salbuespenik gabe. Era berean, sektore publikoarekin kontratatze eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituelako erantzukizunpeko adierazpen hartuko da proposamenaren aurkezpena. Beraz, eskaintzek bete egingo dituzte emandako dokumentazioan eta beronen eranskinetan aurreikusten diren baldintza tekniko, ekonomiko, operatibo edo bestelako guztiak.

Lizitatuak aurkeztutako edozein dokumentu jasota dagoen edozein salbuespen ez aurkeztuz joko da, betiere, eta kontratazio-organoak lizitazioaren oinarritzat emandako dokumentazioan jasotako baldintzetan gauzatu behar da kontratua.

2. Proposamenak aurkezteko, autonomia erkidegoan ofizial diren bi hizkuntzetako edozein erabili ahal izango da.
3. Informazio guztia paperean eta euskarri informatikoz aurkeztu behar da (Word-eko fitxategiak, eta Presto 8.8, Excel, mpp, pdf, dwg, ...), Agiri honetan jasotako baldintzei jarraiki. Euskarri horietako datu edo informazioen artean desadostasunik baldin badago, paper inprimatuan aurkeztutako dokumentazioan jaso izango da nagusi.

Eskaintzak makinaz edo beste inprimatze mekaniko edo informatiko mota batez idatzita aurkeztuko dira, eta ez da onartuko eskuz idatzitakorik ez eskaintza baloratzeko baldintzak argi eta zehatz zein diren ikustea eragozten duen hutsune,

akats edo zuzenketarik duenik. Era berean, ez da onartuko HAKLEOren 84. artikuluan ezarritako balizkoetan sartzen den proposamenik.

Zehazki, eskaintza ekonomikoa Agiri honekin batera doan dokumentu informatikoan aurkeztu beharko da. Ezin izango da horren formatua aldatu.

4. Ez da onartuko HAKLEOren 84. artikuluan ezarritako kasuetakoren batean dagoen proposamenik. Horrenbestez, aztertu eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozen proposamenak, agirietan ezarritako eredia nabarmen aldatzen dutenak eta zenbatekoetan akats nabarmenak dituztenak baztertu egingo dira, eta gauza bera egingo da dituzten akatsengatik edo funtsik ezagatik lizitatzailleak berak bideraezinak direla aitortuen kasuan ere.
5. Prozedura honetara aurkezten diren eskaintzak prestatzeko dokumentazioa egiteko lanen kostu osoa lizitatzailleen kontura izango da; hauek ezingo dute inolako konpentsazio ekonomikorik eskatu, esleipendun ateratzen ez badira.
6. Eskatutako dokumentazio guztia kopia sinple edo kopia konpultsatu gisa aurkeztuko da, erantzukizunpeko adierazpenak izan ezik. Kopia sinplea eman den kasuetan, dokumentazio originala edo administrazioak edo notario batek behar bezala konpultsatu edo kautotutako kopia ematea eskatuko dio GHK-k lehen sailkatuari.

16.3 Proposamenak aurkezteko modua

Lizitazio honetan parte hartzeko, enpresa lizitatzailleek, GHKren bulegoetan, eta agiri honetako 16.1 klausulan ezarritako epearen barnean, hiru gutun-azal itxi aurkeztu beharko dituzte. Aurrerago zehaztuko da gutun-azal bakoitzaren edukia, baina gutun-azal bakoitzaren kanpoaldean enpresaren izena, eskaintza sinatzen duen pertsonaren izen-abizenak eta kargua, enpresaren telefono eta fax-zenbakiak eta helbide elektronikoa agertu beharko dira, hori guztia inolako arazorik gabe irakurtzeko moduan. Era berean, gutun-azalean inskripzio hau joango da: **“SASIETA MANKOMUNITATEKO HIRI HONDAKINAK ZABORTEGIETARA ETA TRATAMENDU PLANTETARA GARRAIATZEKO ZERBITZURAKO KONTRATUAREN LIZITAZIOA”**.

Gutun-azal bakoitzaren edukia -hori orri independente batean jasoko da, zerrenda moduan- ondoren adierazten dokumentuez osatuko da:

1 zk.ko gutun-azala.- “DOKUMENTAZIO OROKORRA”

A gutun-azalak dokumentu hauek izango ditu:

- a) **Enpresariak eta, hala badagokio, bere ordezkariak jarduteko gaitasuna dutela egiaztatzen duten agiria**, HAKLEOren 21. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz.

Jarduteko gaitasuna honela frogatuko da:

- Lizitatzaileria pertsona juridikoa denean, osaketa-eskritura edo -dokumentua, Estatutuak edo fundazio-egintza aurkeztu beharko dira; bertan agertuko dira bere jardura arautzen duten xedapenak, eta pertsona juridiko motaren arabera dagokion Erregistro Publikoan behar bezala inskribatuta egongo dira.
- Proposamena izenpetzen dutenak aldi baterako enpresa-elkarte bat eratzea aurreikusten duten pertsona fisikoak edo juridikoak baldin badira, dokumentu pribatu bat jasoko da, horretan adieraziz elkarrekin agertzeko borondatea eta kontratua garatzeko ABEEa eratzeko konpromisoa esleipendun ateraz gero; horretaz gain, bakoitzari dagokion partaidetzaren portzentajea adieraziko da, eta ordezkari edo ahalduen bakarria izendatuko da, behar besteko ahalmenez bai eskubideak baliatzeko bai kontratua iraungi arte sortzen diren obligazioak betetzeko. Idazki horrek enpresa elkartuek zein ahalduenak berak sinatuta egon beharko du. Elkarrekin aurkezten den enpresa-elkarte baten parte gisa eskaintza aurkezten duenak ezingo du banakako proposamenik aurkeztu, ezin izango da aldi baterako beste elkarte batean sartu, eta ezingo da beste enpresa batzuekin batera aurkeztu ere. Galarazpen hau urratuz gero, araua hautsi duen lizitatzaileraren sinadura daramaten eskaintza guztiak atzera botako dira.
- Lizitatzailerak bere izenean diharduenean, partaidearen Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia edo kasuan kasuko estatuan horren baliokidea denarena aurkeztu beharko da.
- Beste pertsona baten izenean proposamenak aurkeztu edo sinatzen dituzten pertsonak, Espainiako Nortasun Agiri Nazionalaren kopia aurkeztuko dute, horretarako botere askietsiarekin batera. Enpresa lizitatzaileria elkarte edo pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritza Erregistroan inskribatuta agertu beharko du, Merkataritza Erregistroaren Araudiak 94. artikuluan xedatutakoari jarraiki hala eskatzen denean.
- Europar Batasuneko estatu kideetako enpresari ez espainiarrak direnean, enpresariaren estatuko legeriari jarraituz egokia den lanbide- edo merkataritza-erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, edo zinpeko adierazpen bat edo egiaztagiria bat aurkeztu beharko dute, ezargarriak diren erkidegoko xedapenen arabera.
- Gainerako enpresari atzerritarrek jarduteko gaitasuna dutela egiaztatu beharko dute enpresariaren egoitza duen lekuan Espainiak duen Diplomaziako Misio Iraunkorrek edo Kontsultxeko Bulegoak emandako txostenaren bidez. Txosten horretan aipatu behar da atzerriko enpresa horren estatuak Administrazioarekin, eta esparru publikoko erakunde, organismo edo entitateekin kontratatze aukera onartzen diela espainiar enpresei, hau da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 3. artikuluan xedatutako kasuak modu berdintsuan betetzen direla.

b) **Erantzukizunpeko berariazko adierazpena**, I. eranskin moduan gehitutako ereduaren arabera, baldin eta, SPKLTBren 60. artikuluan arabera, **kontratatzeko debekurik ez**

badu, eta berariaz aipatu beharko da adierazitako artikulua 1. idatzi-zatiaren c) letra, hau da, inolako zigor irmorik ez zaiola ezarri laneko segurtasun eta osasunaren alorreko urratze oso larriak direla-eta, eta zergaren alorreko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela, HAKLEOren 13. eta 14. artikuluetan jasotako irismenez eta formaz.

c) **JEZan alta emanda dagoela egiaztatu beharko du**, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean; horretarako, altaren dokumentua aurkeztu beharko du, indarrean dagoen ekitaldiari badagokio, edo JEZaren azken ordainagiria, gainerako egoeretan, eta, nolana ere, aipatutako zergaren matrikulan baja eman ez duela ziurtatzen duen erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztuko du (l. eranskina).

d) **Lizitzaileen izaera konfidentzialeko agiriak eta datuak**. SPKLTBren 140. artikuluan aurreikusten den bezala, enpresa lizitzaileek aitorten osagarri baten bidez adierazi beharko dute, egokia bada, aurkeztutako zer agiri administratibo eta tekniko eta zer datu diren, beren ustez, konfidentzialtzat jotzeko modukoak. Hori, gainera, argi eta garbi adierazi beharko da (gainprimatua, marjinan edo beste edozein modutan) halakotzat adierazitako dokumentuan bertan. Enpresa lizitzaileek aurkeztutako dokumentu eta datuak izaera konfidentzialekotzat jo ahal izango dira egoera hauetan: hirugarrenei aditzera ematea merkataritzako legezko interesen aurkako denean edo arloko enpresen arteko lehiakortasunaren kalterako denean, edo dokumentu eta datu horiek izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren debekuen artean daudenean. Aitorten hori aurkeztu ezean, aurkeztutako dokumentu eta datu guztiak edo batzuk, dituzten ezaugarrien arabera, izaera konfidentzialekoak ez direla jo ahal izango da.

e) Erakunde lizitzaileak, gainera, lehiaketa publikoan parte hartu ahal izateko, honako **kaudimen baldintza** hauek bete beharko ditu:

e.1.) **Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa** egiaztatuko da SPKLTBren 75. artikulua arabera, dokumentu hauek aurkeztuta:

1. Urteko negozio bolumenari buruzko adierazpena eta, hala badagokio, kontratuak aipatzen duen urteko negozio bolumenari buruzkoa, lizitazio iragarkian eta kontratuko agirietan urteko bakoitzari dagokionez eskatzen denaren pareko edo handiagoko zenbatekoaz.

2. Lanbide arriskuengatiko kalte-ordain aseguru bat (erantzukizun zibila) badelako frogagiria; **aseguru horrek lizitazioaren iragarkian eta kontratuko agirietan eskatzen denaren pareko edo handiagoko zenbatekoa hartu beharko du (xxx.000 € gutxienez).**

3. Enpresa esleipendunak Ingurumen Erantzukizuneko aseguru baten kontratazioa egiaztatu beharko du; horren muga aseguraturua ezingo da xxx.000 €tik beherakoa izan (xxx mila euro) ezbehar kasuetarako, ezta xxx.000 €tik (xxx mila euro) beherakoa ere urteko bakoitzeko. Ingurumen Erantzukizuneko poliza horrek agiri honek jasotzen dituen kontratatutako zerbitzuaren alderdi guztiak estaliko ditu. Hala, esleipendunak bere gain hartuko du zerbitzua gauzatzean

GHKri edo hirugarren batzuei eragin diezazkiekeen kalteen gaineko erantzukizun osoa.

Lizitatuzaileak edo taldea osatzen duten lizitatuzaileetako batek, justifikatutako arrazoiak direla-eta, ezin baditu eskatutako erreferentzia horiek aurkeztu, kontratazio-organoak baimena eman ahal izango dio bere ustez egokia den beste edozein agiriren bidez egiazta dezan bere kaudimen ekonomiko eta finantzariora.

e.2.) **Kaudimen tekniko eta profesionala** SPKLTBren 78. artikulua araberago egiaztatuko da, agiri hauek aurkeztuta:

1. Azken bost urtean emandako zerbitzu edo egindako lan nagusien zerrenda, horretan jasoz halaber zenbatekoak eta zerbitzu eta lanen onuradun publiko edo pribatuak; ziurtatu beharko da bost zerbitzu edo antzeko lan egin izana. Egindako zerbitzu edo lanak egiaztatzeko, eskumena duen organoak emandako ziurtagiriak edo bisatuak erabiliko dira hartzailea sektore publikoko entitate bat den kasuetan; hartzailea subjektu pribatu bat denean, honek emandako ziurtagiri baten bidez edo, horrelakorik ezean, enpresariaren adierazpen batez; hala dagokionean, ziurtagiri horiek zuzenean helaraziko dizkio kontratazio-organoari eskumena duen agintaritzak.
2. Kontratuan parte hartzen duten teknikarien edo unitate teknikoaren, enpresan sartu edo sartu gabeen, zehaztapena.
3. Enpresariaren eta enpresaren zuzendaritzako pertsonalaren titulazio akademiko eta profesionalak, eta bereziki kontratua gauzatzeko ardura duen pertsonalarenak.
4. Egiaztatu egin beharko da, halaber, langile guztiek gutxienez 2 urteko esperientzia dutela eskaintzan proposatzen diren bitarteko mekanikoen baliokideak erabiliz zertutako merkantzia garraioan.
5. Aitorpena, lanak edo prestazioak behar bezala gauzatzeko erabiliko diren makinak, materiala eta ekipo teknikoa adierazita bertan; dagozkion dokumentuak gehituko zaizkio aitorpenari, Baldintza Teknikoen Agiriaren 5.1 klausulak dioen moduan.
6. Enpresariak azpikontratatzeko asmoa duen kontratu zatiaren zehaztapena.
7. Baldintza Teknikoen Agiriko 5. apartatuan zehaztutako baldintza teknikoak betetzen direlako dokumentu bidezko justifikazioa.
8. Lizitatuzaileek egiaztatu beharko dute garraio publikorako baimen administratiboa daukatela, martxoaren 20ko FOM/734/2007 Aginduak definitzen duenaren bidetik.

9. Lizitzaileek egiaztatu egin beharko dute espainiar estatutik kanpo egin beharreko garraioen kasurako badutela Espainian Sustapen Ministerioak ematen duen **Batasun Barnerako Baimena**.

f) Proposamena **aldi baterako enpresa-elkarte** batek aurkezten badu, elkarteko kideetako bakoitzak gaitasuna eta kaudimena dituela egiaztatu beharko du. Hala bada, metatu egingo dira, dagokionaren arabera, bai elkarteko ekipo bakoitzarentzat egiaztatutako ezaugarriak, bai aldi baterako enpresa-elkarteko ekipoen banakako sailkapenak, agiri honetan eskatzen den kaudimen/sailkapen orokorra egiaztatu ahal izateko. Era berean, enpresa guztien ordezkariak sinatutako dokumentu bat aurkeztu beharko da, eta bertan honako alderdi hauek adieraziko dira: izenpetzen duten enpresarien izenak eta inguruabarrak; esleipendun suertatuz gero, aldi baterako enpresa-elkartea formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela; enpresari bakoitzak elkartean duen partaidetza; eta kontratuaren indarraldian, administrazioaren aurrean enpresa guztien ordezkaritza izango duen pertsonaren izendapena.

Sailkapena nahitaezkoa denean eta aldi baterako enpresa-elkarteko kideak enpresari nazionalak, Europar Batasuneko estatu kide batekoak ez diren atzerritarrak eta Europar Batasuneko estatu kide batekoak diren atzerritarrak direnean, lehenengo bi multzoetakoek beren sailkapena egiaztatu beharko dute, eta azkenekoek kaudimen ekonomiko eta finantzariora, eta tekniko edo profesionala.

g) **Atzerriko enpresek** adierazpen bat aurkeztu beharko dute, agiri honetako **III. eranskinean** jasotzen den ereduari jarraiki, eta horren bidez ziurtatuko dute kontratutik zuzenean edo zeharka etor litezkeen gorabehera guztietan Espainiako edozein motatako epaitegi eta auzitegien mende jartzen direla, eta, hala dagokionean, lizitzaileei atzerrian egokitu dakiekeen foru jurisdikzionalari uko egiten diotela.

Aurrekoaz gain, Europar Batasunetik kanpoko atzerriko enpresek egiaztatu beharko dute Espainian sukurtsal bat irekia dutela, eta egin beharreko eragiketetarako ahaldunak edo ordezkariak izendatuta dauzkatala, baita Merkataritza Erregistroan izena emanda daudela ere.

Enpresa horiek aurkezten duten dokumentazioa era ofizialean itzulita egongo da gaztelaniara edo euskarara, HAKLEOren 23. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

h) Prozedura honen ondoriozko jakinarazpenak egiteko posta elektronikoaren helbidea, SPKLTBren 151.4. artikuluaen arabera eta bertan aurreikusitako ondorioez (**IV. eranskina**).

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten eta Enpresen Erregistro Ofizialak edo Lizitzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialak emandako ziurtagiri baten bidez egiaztatu ahal izango dira a) eta c) letretan adierazitako inguruabarrak, edo erkidegoko sailkapen-agiri baten bidez, SPKLTBren 84. artikuluan xedatutakoaren arabera. Ziurtagiri horiekin batera, lizitzailearen erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, eta bertan adieraziko da ziurtagirian jasotako inguruabarrak ez

direla aldatu. Esleipendun suertatuz gero, adierazpen hori berriz egin beharko da kontratua formalizatzeko agirian; nolana ere, kontratazio-organoak, egoki irizten badio, kontsulta egingo du Kontratisten Erregistroan.

2 zk.ko gutun-azala: PROPOSAMEN TEKNIKOA

Proposamena memoria tekniko batean definituko da. Horretan, Baldintza Teknikoen Agiriko 5. klausulan definitzen diren baldintza guztiak betetzen direla justifikatuko da, eta puntuazio teknikoa izan dezaketen edukiak zehaztuko dira (ikusi Agiri honetako 18. klausula).

Memoria horretan lizitatzailerik deskribatu egin beharko dituzte, ahalik eta zehatzen, garraio zerbitzua emateko modua eta Elgoibarko Arriaga poligonoko transferentzia-estazioaren ustiapena, aurreikusten diren bitartekoak eta plangintza zerbitzu beharrak estaltzeko egokiak direla justifikatuz bide batez.

3. gutun-azala: PROPOSAMEN EKONOMIKOA

Lizitatzailerik proposamen ekonomiko bat aurkeztu beharko dute, Agiri honetako **V. eranskinean** jasotako ereduari egokituta.

Horri memoria ekonomikoa erantsiko zaio, honetan zehaztuta betiere honako alderdiak:

Pertsonal kostu unitarioak aplikagarria den hitzarmen kolektiboaren kopia batez eta enpresak langileko duen kostuaren justifikazio kalkuluz justifikatuko dira. Ibilgailu eta makineriaren mantentze eta kontsumo kostu unitarioak (lanaldiko, kilometroko edo egoki irizitako unitatea erabiliz), dagokion kalkulu banakatuaren bidez justifikatuko dira.

Aurrekontuaren banakapenak kontratuari egotzitako kostu GUZTIEN banakapen zehatza jaso behar du: pertsonala, pertsonalaren estaldura, ibilgailu, makineria eta instalazioen mantentze eta kontsumo gastu korronteak, langileen jantziak, segurtasun eta osasun gastuak, aseguruak, administrazio eta zuzendaritza gastuak, eta eskainitako prezioak eragina duen beste kostu oro.

Lizitatzailerik industri irabaziaren portzentaje bat aplikatuko diote kostu horien guztien baturari.

Osagarri gisa, kostuen izaeraren arabera banakapena finkatuko da (pertsonala, mantentzea, erregaiak, etab.), ondoren erreferentzia bat izatearren Baldintza Administrazio Partikularren Agiri honetako 8. apartatuan finkatutako prezioen berrikuspenera aplikatzen begira. Prezio eskainian ez da sartu beharko ekipoen amortizazioari dagokion inolako kopururik.

17 BEHIN-BEHINEKO BERMEAK JARTZEA

Lizitazio honetara aurkeztu ahal izateko, egiaztatu egin beharko da behin-behineko bermea jarri dela kontratazio-organoaren eskura. Horretarako hainbat betekizun eta baldintza izango dira, honakoak:

1. Behin-behineko bermea lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 2ko kopuruaz eratuko da, BEZ kanpo.
2. Behin-behineko bermea eratzeko moduak eta jartzeko lekuak:
 - a) Eskudirutan. Euskadiko Diruzaintza Orokorrean jarriko da edo, bestela, dagokion erakundeko establezimendu baliokidean. Idazpena egindako balioen ibilgetze ziurtagiriak kontratazio-organoan gordailutuko dira.
 - b) Eragiteko baimenduta dauden banku, aurrezki kutxa, kreditu kooperatiba, kreditu establezimendu finantzario eta elkarrekiko berme sozietateetakoaren batek emandako abalaz; abala bera kontratazio-organoan gordailutu beharko da.
3. Behin-behineko berme gisa jartzen diren abalek erakunde abal-emaiarean ahaldunek, erakundea behar beste behartzeko ahala dutenek, baimenduta egon beharko dute.
4. Behin-behineko bermeak erantzungo du, aurkeztutako proposamenak kontratua esleitu arte mantentzeko. Esleipendun ateratzen den lizitatuarentzat, bermeak erantzungo du, halaber, Agiri honetako 20. klausulan zerrendatzen den dokumentazioaren aurkezpenari lotutako obligazioak betetzeko eta kontratua formalizatzeko unean.
5. Behin-behineko bermea automatikoki iraungiko da, eta lizitatuarenei itzuliko zaie, kontratua esleitu eta berehala. Alabaina, esleipendunarena atxikirik geratuko da behin betiko bermea eratzten den arte, eta konfiskatu egingo da esleipena baino lehen bere proposamena justifikatzeke erretiratzen duten enpresena. Horrelakoetan, HAKLEOren 62.1 artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.
6. Esleipendunak aukera izango du bai behin-behineko bermearen zenbatekoa behin betikoan aplikatzeko, bai behin betikoa oso-osorik eratzeko. Azken kasu honetan, behin-behineko bermea behin betikoa eratzten den une berean deuseztatuko da.

Espedientean behar beste justifikatu dira kontratu honetan behin-behineko bermea eskatzeari bidezko iriztea ekarri duten arrazoiak.

18 AURKEZTUTAKO ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK.

Lizitatuzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioaren edukiak aurreko 16.3 klausulan xedatutakoa bete beharko du, klausula honetan xedatutako esleipen-irizpideen arabera baloratu eta puntuazioa eman dakion.

Kontratua eskaintzarik abantailatsuenari esleituko zaio, ondoren adierazten diren irizpide objektiboekin bat:

1. IRIZPIDEA: PROPOSAMEN TEKNIKOA (MEMORIA TEKNIKOA: ZERBITZUA EMATEKO PROIEKTUA): 39 PUNTU ARTE (2 zk.ko gutun-azala).

Proposamen teknikoak honela baloratuko dira:

1. Aurreikusitako giza bitartekoen egokitasuna zerbitzuko beharrak estaltzeko. Pertsona kopuruari, egindako lanei eta pertsona horien kualifikazioari buruzko xehetasuna aurkeztuko da **9 puntu arte**
2. Aurreikusitako bitarteko materialen egokitasuna zerbitzuko beharrak estaltzeko.
 - Aditzera emango dira eskaintzan sartutako trakzio-buru kopurua, hiri hondakinak etabiohondakinak garraiatzeko zoru mugikorreko erdi-atoi kopurua, horien ezaugarriekin eta izango dituzten ordezkoei dagozkienekin batera horrelakorik izanez gero, eta ibilgailu bakoitzaren dokumentazioa ere aurkeztuko da, eskaintzen diren ekipoen egokitasun teknikoa baloratzera begira **15 puntu arte**
3. Memoria teknikoan islatzen diren lanen plangintza eta antolaketa, azterketaren xehetasun mailarekin batera, Baldintza Teknikoen Agiriaren 7.3 apartatuan deskribatuaren arabera **15 puntu arte**

2. IRIZPIDEA: KONTRATUAN SARTZEKO LIZITATZAILEAK PROPOSATZEN DITUEN HOBKUNTZAK: 10 PUNTU ARTE (2 zk.ko gutun-azala).

Lizitatuzaileek baldintza-agiri honetarako hobekuntzak **proposatu** ahal izango dituzte, egoki deritzeten bitarteko materialak, giza bitartekoak edo beste mota batzuetakoak eskainiz, eta eskaintzen duten hobekuntzaren alderdi teknikoak, ekonomikoak eta hobekuntza justifikatzekoak jasoz eta baloratuz.

Hobekuntzei dagokienez, puntuazio handiagoa izango dute bitarteko materialen egokitzapenarekin lotuta daudenek.

Honek ezingo dio, inolaz ere, kostu gehigarriak eragin GHKri, eta lizitatuzaileak aurkezten duen eskaintzaren barnean egongo da.

Hobekuntza horiek **gehienez 10 puntuz** baloratuko dira, GHKren zerbitzu teknikoan irizpide eta balorazioaren arabera.

3. IRIZPIDEA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA: 51 PUNTU ARTE (3 zk.ko gutun-azala).

Zazpi prezio aurkeztu beharko dira, garraiatutako hondakin tonako:

HONDAKIN MOTA	DESTINOA	TONA GARRAIATUAREN PREZIOA
ERREFUSA	GIPUZKOAKO ZABORTEGI ETA PLANTAK	<u>1. PREZIOA</u>
BIOHONDAKINA	LAPATX + EPELE	<u>2. PREZIOA</u>
BIOHONDAKINA	CAPARROSO	<u>3. PREZIOA</u>
BIOHONDAKINA	FUNES	<u>4. PREZIOA</u>
ERREFUSA + BIOHONDAKINA	Prezioa * Tn * km, 100 Km arte	<u>5. PREZIOA</u>
ERREFUSA + BIOHONDAKINA	Prezioa * Tn * km , 200 Km arte	<u>6. PREZIOA</u>
ERREFUSA + BIOHONDAKINA	Prezioa * Tn * km, 400 Km arte	<u>7. PREZIOA</u>

Sasieta→Lapatx: 52 km (Joan etorrian)

Sasieta→Epele:46 km (Joan etorrian)

Sasieta→Funes: 295 km (Joan etorrian)

Sasieta→Caparroso: 280 km (Joan etorrian)

Onartutako proposamenei dagozkien eskaintza ekonomikoen puntuazioen kalkulua ondoko taula eta puntu banaketaren arabera egingo da; hau da, eskatutako eta eskainitako **PREZIO** bakoitzari puntuazio bat emango zaio, GHKrentzat abantailatsuena den prezioaren arabera hurrenkerari jarraiki, eskatutako destino eta prezio bakoitzari dagokionez:

	1. PREZIOA	2. PREZIOA	3. PREZIOA	4. PREZIOA	5. PREZIOA	6.PREZIOA	7.PREZIOA
PUNTUAZIO MAXIMOA (PIMAX)	20	3	7	7	4	8	2

Erreferentziako tona kopuruak, ez lotesleak destino bakoitzerako, honakoak dira gutxi gorabehera:

	ERREFUSA	BIOHONDAKINA
KOPURUA	16.800 TN	8.400TN

Lizitazio prezio gehienezkoak, kasu bakoitzerako, honakoak dira:

HONDAKIN MOTA	ERREFUSA	BIOHONDAKINA			ERREFUSA+BIOHONDAKINA		
DESTINOA	1. PREZIOA	2. PREZIOA	3. PREZIOA	4. PREZIOA	5. PREZIOA	6. PREZIOA	7. PREZIOA
GIPUZKOAKO ZABORTEGI ETA PLANTAK		LAPATX+EPELE	LOREKI	CAPARROSO + FUNES	ALDAKORRA 100 KM ARTE	ALDAKORRA 200 KM ARTE	ALDAKORRA 400 KM ARTE
GEHIENEZKO PREZIO UNITARIO	9€/tn	10€/tn	14€/tn	17€/tn	0,22€/tn	0,16€/tn	0,14€/tn

Onartutako proposamenen eskaintza ekonomikoen puntuazioak kalkulatzeko, jarraibide hauek izango dira gidari:

Beharpen maximoa: 51 puntu

Batez besteko beharpena: 46 puntu

Batez besteko beharpena -%5: 41 puntu (Batez Besteko beharpena >%5 bada bakarrik aplikatzekoa)

Batez besteko beharpena -%10: 31 puntu (Batez Besteko beharpena >%10 bada bakarrik aplikatzekoa)

0 beharpena (Eskaintza Prezioa = Lizitazio Prezioa): 0 puntu

Beharpenak bi balioen arteko tartetan daudenean, puntuazioa kalkulatzeko linealki interpolatuko dira tarte bakoitzaren mugako balioak.

Batez besteko beharpena kalkulatzeko, irizpide hauek aplikatuko dira:

- Eskaintza bakarra baloratzen bada, aurkeztutako eskaintzako beherapena izango da Batez Besteko Beherapena.
- Bi eskaintza baloratzen badira, bi eskaintzetako beherapenen batez bestekoa izango da Batez Besteko Beherapena.
- Hiru eskaintza edo gehiago baloratzen badira, Batez Besteko Beherapena kalkulatzeko ez dira kontuan hartuko ez beherapen handiena duen eskaintza eta ezta beherapen txikiena duena ere.

Eskaintza bateko proposamen ekonomikoko prezio unitarioak lizitazioko oinarrizko prezio bakoitzetik gorakoak badira, eskaintza ez da kontuan hartuko.

19 PROPOSAMEN NEURRIGABEAK EDO OHIZ KANPOKOAK

1. Eskaintza bat neurritz kanpokotzat edo ezohikotzat joko da, baldin eta bere beherapen portzentajeak % 20 baino gehiagoz gainditzen badu onartutako oinarrizko proposamen guztien baja edo beherapen-portzentajeen batez besteko aritmetikoa.
2. Lizitatzailerik bakoitzaren proposamenaren kalkulua 1., 2., 3. eta 4. prezioetarako zenbatetsitako urteko kopuruak lizitatzailerik eskaintutako prezio unitario bakoitzaz biderkatuz ateratzen dena izango da.
3. Kontratu honen xedeari lotuta, neurritz kanpoko edo ezohiko eskaintzarik jasotzen bada, horiei uko egin baino lehen, hori aurkeztu duenari eskatuko zaio eskaintzaren osaketari buruz egokiak iruditzen zaizkion argibideak ematea idatziz; Kontratazio Mahaiak, argibide horiek kontuan hartuta, eskaintza egiaztatuko du. Lizitatzailerik hiru eguneko (3) epea izango dute argibide-eskaera jasotzen duten momentutik aurrera, horiek idatziz bidaltzeko.

Kontratazio Mahaiak kontuan hartu ahal izango ditu justifikazio objektiboak, hala nola eraikuntza edo fabrikazio metodoaren ekonomia, aukeratutako soluzio teknikoak, edo lizitatzailerik kontratua gauzatzeko unean izango dituen baldintza zeharo abantailatsuak.

Edonola ere, eskaintza oso merkeak aurkezten badira lizitatzailerik emandako justifikazioaren arabera, GHK-k horiek atzera bota ahal izango ditu.

20 PROPOSAMENAK IREKITZEA, ESKAINTZAK SAILKATZEA ETA KONTRATUA ESLEITZEA

20.1. Proposamenak irekitzea

Kontratazio Mahaiak 1 zk.ko gutun-azala irekiko du lehenik, eta bertan jasotako dokumentuak kalifikatuko ditu. Konpontzeko moduko akats edo hutsegiterik ikusten badute, gehienez ere hiru laneguneko epea emango dute, lizitatzailleak horiek konpon ditzan.

Dokumentazioa kalifikatu eta, hala dagokionean, bertan diren akats edo hutsegiteak konpondu ondoren, proposamen teknikoa jasotzen duen 2 zk.ko gutun-azala irekiko da, jendaurrean eta ondoren aurkeztutako proposamenak aztertuko dira.

Proposamen ekonomikoa hartzen duen 3 zk.ko gutun-azala jendaurrean irekiko da, GHKren bulegoetan (Ibaiondo poligonoa, 27-3.a, Orbegozo eraikina, Hernani). Proposamen ekonomikoak irekitzeko ekitaldi publiko horretan GHKren Kontratazio Mahaiak parte hartuko du, eta bertan diren lizitatzailleei eman egingo zaie egin dituzten proposamen teknikoen balorazioa.

20.2. Eskaintzak sailkatzea

Hurrengo egunetan zehar, zerbitzu teknikoek aztertu eta baloratu egingo dituzte proposamenak, eta Kontratazio Mahaiari txostena emango diote. Honek esleipen proposamena prestatuko du, GHKren Administrazio Kontseilurako, behar bezala arrazoituta. Bere proposamena egin baino lehen, Kontratazio Mahaiak kontratazio-organoari helaraziko dion eskaintza-sailkapenerako beharrezkoak diren txosten tekniko eta juridikoak eskatu beharko ditu.

Kontratazio-organoak sailkatu egingo ditu aurkeztutako proposamenak, puntuazio altuena duenetik gutxien duenera, Baldintza Teknikoen Agirian xedatutakoaren arabera, anormalak edo neurrigabeak ez badira. Sailkapen hori egiteko, agirian edo iragarkian adierazitako esleipen-irizpideak hartuko ditu kontuan, eta horretarako, beharrezkotzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatuko ditu, hain zuzen SPKLTBren 151. artikulua ezartzen duen moduan.

Kontratazio-organoak eskatuko dio ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintza aurkeztu duen lizitatzailari aurkez dezala, errekerimendua jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita hamar laneguneko epean, esleipen prezioaren % 5eko behin betiko bermea jarri duela eta zergen eta Gizarte Segurantzaren inguruko betebeharretan egunean dagoela justifikatzeko dokumentazioa, edo bestela eman diezaiola baimena kontratazio-organoari dokumentazio hori zuzenean jasotzeko. Ziurtagiri horiek bitarteko elektronikoez,

informatikoez edo telematikoez egin ahal izango dira, baldintza-agirietan bestelakorik ezartzen ez bada behintzat.

Errekerimendua aipatutako epean egoki betetzen ez bada, lizitatzailleak bere eskaintza kendu duela ulertuko da; horrelakoetan, dokumentazio bera eskatuko zaio eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeraren arabera hurrengo den lizitatzaileri.

20.3. Esleipena

Kontratazio-organoak kontratua esleitu beharko du dokumentazioa jaso eta hurrengo bost (5) egun baliodunen barruan.

Ezingo da utzi esleitu gabe lizitazio bat, baldin eta agirian azaltzen diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat badago, SPKLTBaren 151.3. artikulua jasotzen duen moduan. Halere, kontratazio organoak kontratua burutzeari uko egin diezaioke, esleipena baino lehen, behar bezala arrazoitutako interes publikoko arrazoiengatik, SPKLTBaren 155. artikulua arabera.

Esleipena arrazoitu egin beharko da, hautagai edo lizitatzaileri jakinaraziko zaie eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean ere argitaratuko da.

20.4. Esleipenaren jakinarazpena

Edozein kasutan, jakinarazpen horrek beharrezko informazioa eman beharko du, bereziki informazio hau:

- a) Baztertutako hautagaiei dagokienez, haien hautagaitza atzera botatzeko arrazoen azalpen laburra.
- b) Esleipen-prozeduratik kanpo utzitako lizitatzaileri dagokienez, haien eskaintza ez onartzeko arrazoiak, horiek ere laburtuta.
- c) Zernahi gisaz, esleipendunaren izena eta, oro har, zein izan diren esleipendunaren proposamenaren ezaugarri eta abantaila erabakigarriak, gainerako lizitatzailleek aurkeztutako proposamenen aurrean esleipendunarena lehenesteko.

Esleipenaren motibazioan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 153. artikuluan jasotako konfidentzialtasun salbuespena aplikatu beharko da.

Jakinarazpena egiteko, jasotzaileak hartu duela egiaztatzea ahalbidetzen duten bitartekoetako edozein erabiliko da. Bereziki, posta elektronikoaren bidez egin ahal izango da, lizitatzaille edo hautagaiek proposamenak aurkeztean Agiri honetako IV. eranskinean zehaztu duten helbidera bidalita, Herritarrak bitarteko elektronikoen bidez zerbitzu publikoetan sartzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 28. artikuluan ezarritako moduan. Hala ere, jakinarazpenari uko egin zaiola jotzeko epea, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.4. artikuluan aurreikusitako ondorioez, bost (5) eguneko izango da.

Aurreko guztia horrela bada ere, kontratazio-organoak erabaki dezake, espedientean behar bezala arrazoituta, esleipenari buruzko hainbat datu ez jakinaraztea, baldin eta informazio hori zabaltzeak arau baten aplikazioa oztopa badezake, edo interes publikoaren aurkakoa bada, edo enpresa publiko zein pribatuen merkataritza interes legitimoak kaltetu baditzake, edota enpresen arteko lehia garbia oztopa badezake.

20.5. Esleipena deuseztatzea

Kontratua lizitatzailerik aukeratuari esleitzea ez denean bidezko azken honek ez dituelako betetzen horretarako baldintzak, lizitazio berri bati ekin aurretik Administrazio Kontseiluak beste esleipen bat egin ahal izango du, lehenaren ondorengo lizitatzaileraren edo lizitatzaileraren alde, eskaintzek lortu duten hurrenkeraren arabera, baldin eta hori egitea posible bada eta esleipendun berriak bere adostasuna adierazi badu. Horrelakoetan, berri honi hamar (10) egun balioduneko beste epe bat emango zaio, Agiri honetako 20.2 eta 21. klausuletan adierazitako dokumentazioa aurkez dezan.

20.6 Dokumentazioaren zaintza

Behin kontratua esleitu eta gero, eta errekurtsioak ezartzeko epea betetzen denean inolako errekurtsorik jarri gabe, proposamenekin batera doazen agiri guztiak interesdunen eskura geratuko dira. Dokumentazioa jasotzeko eskaera idatziz egin beharko da. Hurrengo hiru hilabetean interesdunek beren dokumentazioa jasotzen ez badute, kontratazio-organoak ez du hori zaintzen jarraitzeko obligaziorik izango, behin-behineko bermea justifikatzen duten dokumentuak izan ezik, horiek interesduneri itzultzeko gordeko baitira.

21 BEHIN BETIKO BERMEA

Agiri honetako 17. klausulak dioen moduan, eskaintza ekonomikorik abantailatsuenaren aurkeztu duen lizitatzailerik behin betiko berme bat eratu beharko du, **esleipen prezioaren % 5eko** bat, kontratazio-organoaren alde, kanpoan utzita Balio Erantsiaren gaineko Zerga, SPKLTBren 95.2 artikularekin bat, kontratuko betebeharrak betetzea bermatzearen.

- Behin betiko bermeak erantzungo du SPKLTBren 100. artikuluan aipatzen diren kontzeptuei dagokienez.
- Bermea SPKLTBren 96. artikuluan ezarritako moduetako edozeinetan eratu ahal izango da. Eta baliabide elektronikoz, informatikoz edo telematikoz egiaztatu ahal izango da bermea eratu dela. Baldintza hau ez bada betetzen, eta horretarako arrazoiak esleipendunari egoztekoak badira, GHK-k ez du haren aldeko esleipenik egingo. Horrelakoetan, SPKLTBren 151.2 artikularen azken paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da.
- Kontratuko betekizunak ez betetzeagatik esleipendunari zigorrik ezartzen bazaio, kontratazio-organoak bermearen aurka modu librean jo ahal izango du,

eta eskubide hori ez da etengo lizitatzailerak jar ditzakeen erreklamazio edo errekurtsioak bideratzeko prozesuan.

- Esleipendunak kontratuko betebeharren bat betetzen ez bada, eta ezarritako bermea exekutatu bada, hamabost (15) egun naturaleko epea izango du, bermea exekutatu den datatik aurrera, bermea berrezarri edo dagokion zenbatekoan zabaltzeko.
- Kontratuaren aldaketa baten eraginez prezioa aldatzen bada, bermea ere egokitu egin beharko da, hain zuzen prezio aldatu berriarekiko proportzio egokia mantentzeko. Horretarako epea hamabost eguneko izango da, aldaketari buruzko erabakia enpresariari jakinarazten zaion datatik kontatzen hasita.
- Itzulketa SPKLTBren 102. artikuluan xedatutakoarekin bat egingo da, berme epea igarota, eta esleipendunak bere lege obligazio guztiak bete dituzten.
- Behin betiko bermea urtebeteko epeaz egongo da atxikita, GHK-k Agiri honetako 26. klausulan jasotzen den kontratuaren harrera akta sinatzen duen unetik kontatzen hasita.
- Klausula honetan aipatzen diren xedapenetako edozein betetzen ez bada, kontratua GHKren alde indargabetuko da, baldin eta ez betetzea kontratistari egozteko modukoa bada.

22 ESLEIPENDUNARI ESKATZEN ZAIZKION DOKUMENTUAK

Esleipendunak, agiri honetako 20. klausulan adierazitakoekin batera, eta kontratua formalizatu aurretiko betekizun gisa, dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

- Agiri honetako 16.3 apartatuan eskatzen den aseguru-polizaren errezeptu gaurkotuaren kopia kaitotua.
- Hala dagokionean, ABEEaren legezko eraketaren frogagiria.
- Zernahi gisaz, eta horrekin batera, aipatutako Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan baja eman ez duelako erantzukizuneko adierazpena aurkeztu beharko du.
- Lizitazio iragarkien ordainketaren frogagiria.

23 KONTRATUA BURUTU ETA SINATZEA

Kontratua formalizatzean burutzen da.

23.1 Kontratua formalizatzea

1. Kontratua agiri pribatu batean formalizatuko da.
2. Kontratuaren kasuan kontratazioaren arloko helegite berezira jo daiteke, SPKLTBren 40.1 artikuluekin bat. Beraz, **formalizazioa ezingo da gauzatu lizitatzailerik ez dagoen eta lizitatzailerik ez dagoen kasuetan**. Kontratazio Organoak esleipendunari eskatuko dio kontratua gehienez bost egun naturaleko epean formalizatzen, errekerimendua jaso eta biharamunetik kontatzen hasira, betiere aurreko paragrafoan aurreikusitako epea igaro ondoren kontratuaren formalizazioa etetea dakarren helegiterik aurkeztu gabe. Berdin jokatu du, helegitea erabakitze eskumena duen organoak etendura altxatzen duenean ere.
3. Kontratua formalizatzen dokumentuak bete egin beharko ditu SPKLTBren 26. artikuluan eta HAKLEOren 71. artikuluan ezarritako baldintzak.
4. Kontratua sinatzearekin batera, Baldintza Administratibo Partikularren Agiria, Ezaugarri Tekniko Partikularren Agiria eta berak egindako eskaintza sinatu beharko ditu esleipendunak. Horiek guztiak eranskin gisa lotuko zaizkio kontratuari, HAKLEOren 71. artikuluan jasotzen dituen baldintzetan.
5. Esleipendunak, bere kontura, kontratua eskritura publiko gisa formalizatzea eskatzen badu, eskritura horren kopia sinplea eman beharko dio kontratazio-organuari.

23.2 Ez formalizatzearen ondorioak

1. Esleipendunari egozteko moduko arrazoiak tarteko kontratua ezin bada formalizatu aurreko apartatuan aurreikusitako epearen barnean, SPKLTBren 156.4 artikuluan ezarritakoa aplikatu ahal izango da.
2. Epean ez formalizatzeko horren arrazoiak kontratazio-organuari egoztekoak badira, esleipendunak kalte-ordaina eskatu ahal izango du, berandutzak eragin diezazkiokeen kalteengatik.

III. KAPITULUA: ALDERDIEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

24 KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK

Kontratua exekutatzeko, kontratistak Baldintza Agirian aitortzen diren eskubideak izango ditu, eta bereziki, jarraian aipatzen direnak:

24.1 Ordaina jasotzeko eskubidea

Kontratastak eskubidea izango du hitzartutako prezioa ordain dakion, Agiri honetan eta kontratuko beste dokumentuetan aurreikusitako baldintzetan, berak kontratua galdu-gordean gauzatzeari baitagokio prezio hori.

24.2 Kontratua lagatzea

1. Debeakututa dago esleipendunak kontratuaren eskubideak eta beharkizunak beste norbaiti lagatzea, baldin eta kontratazio-organoak, aldez aurretik, berariaz eta idatziz, horretarako baimenik ematen ez badu. Hala ere, kontratua esleitzeko orduan lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak erabakigarriak izan badira, kontratazio-organoak hori ezeztatu ahal izango du.
2. Aurrekoa eragotzi gabe, kontratuaren lagapena baimentzeko funtsezko baldintza izango da kontratuaren prezioaren ehuneko hogeitaz exekutatuta edukitzea, gutxienez; eta lizitatzailerek Agiri honetan bete behar dituzten gaitasun- eta kaudimen-baldintza berdinak betetzea lagapen-hartzaileak.
3. Eskritura publikoa baimendu eta formalizatu ondoren, lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatuko da lagapen-hartzaileak.

24.3 Azpikontratazioa

Kontratuko prestazioak azpikontratatzeko ezinbestekoa izango da Administrazio Kontseiluak aurrez, berariaz eta idatziz emandako baimena izatea, eta azpikontratastak bete egin beharko ditu GHKrekin kontratatu ahal izatera begira Agiri honetan eskatzen diren betekizun legalak, aurreikusten den bitartekoen atxikipenerako obligazioa betetzeko konpromisoa hartzearekin batera. Hori guztia azpikontratatzeko den edo diren prestazioei dagokienez. Edonola ere, ezingo da gainditu SPKLTBren 227. artikulua azpikontratazioari ezarritako muga.

25 KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

Kontratua gauzatzeko unean kontratastak galdu-gordean jardungo du.

Baldintza Teknikoen Agirian jasotzeko gain, kontratastaren betekizunak izango dira honakoak:

- Zerbitzua ezarritako epean ematea.

- Kontratua gauzatzeko lanetara atxikitzea proposamenean konprometitu dituen giza baliabideak.
- Agiri honetan eskatzen diren aseguru-polizak kontratatzea.
- Behin betiko bermea eratzea.
- Lizitazio eta esleipen iragarkiei dagozkien gastuak ordaintzea.
- Kontratu honen xede diren prestazioetan erabiltzen dituen langileei dagokienez, betetzea lan arloko legedian eta Gizarte Segurantzari buruzkoan indarrean dauden xedapenak.
- Kontratuaren xedea gauzatzeko beharrezko bisatuak, baimen eta lizentziak, dokumentuak edota bestelako edozein informazio ofizial zein pribatu lortzea.
- Kontratuaren xedea zertzean sortzen den bestelako edozein gastu, zergei lotuak barne, indarrean dauden xedapenen arabera.
- Kontratua gauzatzeko jardueren ondorioz GHKri zein hirugarrenei eragiten zaizkien kalteengatiko ordaina ematea.
- Lan eta gizarte arau guztiak betetzea eta, zehazki, Gizarte Segurantzari eta Segurtasun eta Higieneari eta Laneko Arriskuaren Prebentzioari buruzkoak.
- Kontratatista izaera pertsonaleko datuak eskuratzen baditu, bete egin beharko ditu Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikotik eta berau garatzeko arauditik ondorioztatzen diren betekizunak.
- Kontratua amaitzean esleipendunak itzuli egin beharko dizkio GHKri beronen jabetzako garraio-bideak, egoki mantenduta eta arazorik gabe funtzionatzeko moduan, eta esleipendunaren kontura izango dira kontratuaren indarraldian zehar eta kontratua amaitzean mantentze, aseguru, IAT eta abarreatatik sortzen diren gastu guztiak, elementu horiek GHKri itzultzera begira erabiltzeko moduan uzteko sor daitezkeen bestelako gastuekin batera.

25.1 Beharrezko langileak

Baldintza Teknikoen Agiriaren 5.2 klausulak ezartzen duen moduan, esleipendunak zerbitzua emateko beharrezko langileak eduki beharko ditu uneoro, Baldintza Teknikoen Agirian eta aurkeztutako eskaintzan deskribatutako jarraibide eta zehaztapenen arabera. Dituen langile beharrak ezartzeko unean, kontuan hartu beharko du, derrigorrean, kontratu honetarako subrogatu beharreko pertsonala, hurrengo 25.2 apartatuan zehazten den moduan.

Kontratista esleipendunak, kontratuan zehar, ezingo du langile-zerrenda modu egonkor batean handitu, GHK-k aurrez eta idatziz emandako baimenik ezean. Horretarako, eskaera formal bat aurkeztu beharko du aurrez, dagokion justifikazioarekin batera; eta hori GHKren zerbitzu teknikoek ebaluatu, eta hurrena GHK-k eskaera onartu edo atzera bota ahal izango du. Beraz, langile gehiago sartzeko badira, behar puntualak edo aparteko zertzeladak estaltzeko izango da, beti esleipendunaren kontura, eta honek bere gain hartu beharko ditu sartze horien kostuak, hala dagokionean kontratu eteteek, kaleratzeek eta abarrek sortutakoekin batera.

Beraz, kontratatutako zerbitzuak egoki eman ahal izateko beharrezko langileei buruzko aurreikuspen proposamen bat aurkeztu beharko dute bere proposamenetan lizitatzailleek, langileak ordezkatzeko plan batekin batera.

Zerbitzuan buru, eta arduradun nagusi gisa, kontratuaren ordezkaria egongo da, eta bera izango da garraio zerbitzua eta Elgoibarko Arriaga poligonoko transferentzia-estazioaren ustiapena antolatzen eta ikuskatzeko arduraduna. Kargu hori kontrataren alderdi guztietan erabakiak hartzeko behar besteko ahalmena duen pertsona batek beteko du; pertsona hori enpresa esleipendunaren egiturakoa izango da, eta Baldintza Teknikoen Agiriko 4.2 klausula aipatuan adierazitako guztia aplikatu ahal izango zaio, agiri honetako 32. klausulan ezarritakoarekin batera.

GHK-k ez du inolako harreman juridikorik, lan arlokorik edo bestelakorik enpresa esleipendunaren pertsonalarekin, ez kontratuaren indarraldian zehar ez indarraldia amaitu ondoren ere. Enpresa esleipendunaren kontura izango dira kontratu edo bideraketa-sareko zerbitzu hau iraungitzen denean sortzen diren obligazio, kalte-ordain eta erantzukizun guztiak.

25.2 Langileen subrogazioa

Bide Garbiketarako Hitzarmenaren 9. artikulua ezartzen duenaren arabera, kontrata bat amaitzen, galtzen, deuseztatzen, lagatzen edo erreskatatzen den kasuan, eta kasuan kasuko jarduera garatzen duten entitate, pertsona fisiko edo juridikoen artean ordezkatzeko eskatzen duen beste edozein figura edo modalitatearen kasuan, irteten den enpresako langileak zerbitzua egin behar duen enpresa edo entitate publiko berrira atxikiko dira, eta honek errespetatu egin beharko ditu langileek enpresa ordezkatuan zeuzkaten eskubideak eta obligazioak. Hitzarmen hori aplikagarria da, halaber, hondakinak garraiatzeko zerbitzuetarako kontratuetan, Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiaren Lan Arloko Aretoak 971/2012 Erregutze Helegitean 2012ko maiatzaren 2ko dataz emandako epaiaren arabera.

SPKLTBren 120. artikulua arabera, lizitatzailleei aditzera ematen zaie erreferentziako hitzarmen kolektiboan aurreikusten den subrogazioak eragiten dien langileen kontratuetako baldintzak agiri honetako VI. eranskinean jasotzen direnak direla.

25.3 Konfidentzialtasuna

GHK-k kontratistari edozein euskarritan emandako informazioa, dokumentazioa, planoak, artxiboak edo zehaztapenak, kontratua gauzatzekoak, konfidentzial jo beharko ditu kontratistak, eta horiek ezingo dira argitaratu, zabaldu, kontratua gauzatzea ez den beste helburu baterako erabili, edo hirugarrenei jakinarazi edo laga.

Kontratistak bere gain hartzen du kontratuko prestazioak gauzatzeko ematen zaion dokumentazioa leial eta arretaz zaintzeko obligazioa, erabilitako euskarria dena dela, eta horrekin batera konpromisoa hartzen du dokumentazioa eta bertan dagoen

informazioa inolaz ere ez iristeko kontratua gauzatzearekin loturarik ez duten hirugarren pertsoneri.

Kontratatik bere gain hartzen du kontratu hau dela eta onartzen dituen erreserba eta zuhertasun betekizunak bere zerbitzuko langileei aditzera emateko obligazioa.

26 KONTRATAZIO ORGANOAREN ESKUBIDEAK (GHKren ADMINISTRAZIO KONTSEILUA)

Agiri honetan eta kontratuko gainerako dokumentazioan eta aplikagarria den araudian aipatutako mugen barruan, eta bertan adierazitako baldintzei eta ondorioei lotuta, GHK-k jarraian azaltzen diren eskubideak izango ditu.

Zernahi gisaz, kontratuaren xedearen burutzea ez eten eta bere jarraipena bermatzeko beharrezko neurri guztiak hartu ahal izango ditu GHK-k, bereziki kontratatik hitzartutakoa betetzen ez duen kasuetarako. Horrelakoetan, GHK-k eskubidea izango du sortzen diren gastu eta kostuak kontratistari ordainarazteko, eta beharrezkoa bada, edozein kontzepturengatik kontratistari zorduntzen dizkion zenbatekoekin gastu horiek konpentsatzeko. Hori guztia Agiri honetan kontratua indargabetzeari buruz xedatutakoa eragotzi gabe.

26.1 Kontratua aldatzea

GHK-k kontratua aldatu ahal izango du, interes publikoko arrazoiak tarteko, eta behar bezala justifikatutako ustekabekoei erantzuteko.

Kontratua aldatu ahal izango da, halaber, SPKLTBren 107. artikuluan aurreikusitako inguruabarretakoren bat gertatzen denean, betiere eskaintza eta esleipena egiteko funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

Aldaketa posible horiek derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat.

Kontratuaren aldaketa idatziz formalizatu beharko da, SPKLTBren 107. artikuluan aurreikusten den moduan.

26.2 Araudi aplikagarrian aitortutako eskubideak

Agiri honetan eta kontratuaren gainerako dokumentuetan aitortutako eskubideez gain, araudi aplikagarriaren arabera aitortzen den beste edozein eskubide izango du GHK-k.

27 KONTRATAZIO ORGANOAREN BETEBEHARRAK

Agiri honek, kontratuaren gainerako dokumentazioak eta indarrean dagoen araudiak xedatutako beste edozein obligazio beteko du GHK-k.

IV. KAPITULUA: KONTRATUA GAUZATZEAREN GARAPENA ETA JARRAIPENA

28 ZERBITZU PRESTAZIOAREN HASIERA

28.1 Lanen hasiera

Kontratastak kontratua formalizatzen den unetik aurrera hasi beharko du zerbitzu prestazioa.

29 LAN EGITARAUUA

1. Kontratastak zehaztu egin beharko du bere eskaintzan aurkeztutako zerbitzu prestazioaren plangintza. Horretarako, Lan Egitaraua aurkeztu beharko dio GHKri, kontratua formalizatzen denetik kontatzen hasita gehienez hamar (10) egun naturaleko epean.
2. GHK-k Lan Egitaraua onartu beharko du, aurkeztu eta biharamunetik gehienez hamar (10) eguneko epean. Hala dagokionean, sartu beharreko aldaketak eta preskripzioak ere onartu beharko ditu, baldin eta kontratuaren edukiaren kontrakoak ez badira.
3. Kontratastak aurkeztu duen Lan Egitaraua ez bazaie Baldintza Teknikoen Agirian eta kontratuko beste agirietan jasotakoei egokitzen, edo aldaketak sartu behar badira, GHK-k kontratistari eskatuko dio bost (5) eguneko epean akatsak konpondu eta GHK-k egoki deritzen preskripzioak sar ditzan aurkeztutako Lan Egitarauan, baldin eta kontratuaren klausulen kontrakoak ez badira. Kasu honetan, GHK-k bost (5) eguneko beste epe bat izango du, aurkezpenetik kontatzen hasita, Lan Egitaraua ikuskatzeko eta onartzeko.
2. GHK-k onartu ondoren, Lan Egitaraua bi alderdiek formalizatutako kontratuari atxikiko zaio, eranskin gisa.
3. Lan Egitarauak kontratatutako zerbitzuak emateko beharrezko lanen egitarau oso, zehatz eta arrazoitu bat jaso beharko du.

Kontratastak eguneratu egin beharko du Lan Egitaraua kontratuko baldintzak aldatzen badira, eta beharrezko izanez gero egitaraua finkatu edo eguneratu egingo du.

GHK-k erabaki dezake, kontratastak lan egitaraua behar den moduan aurkeztu arte zerbitzu ordainketak ez bideratzea; eta faktura horien ordainketan gerta litekeen atzerapenak ez du berandutza interesak kobratzeko eskubiderik emango.

30 LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA

Kontratuaren esleipenduna den kontratistak GHKren aurrean egiaztatu beharko du Laneko Segurtasun eta Osasuneko betekizunak betetzen dituela.

Enpresak kontratuaren parteren bat azpikontratatzan badu, azpikontratei exijitu beharko dizkie aipatutako obligazio horiei buruzko frogagiriak, behar bestekoak, eta ondoren GHKren prebentzio zerbitzuari eman.

Lanak ezin izango dira abiatu GHKren prebentzio zerbitzuak baimenik eman gabe, betiere beharrezko dokumentazioa egiaztatu ondoren.

Lanean ari direla langileei istripu edo beste edozein motatako kalteren bat gertatuz gero, bere erantzukizuneko izango du indarrean dauden arauetan xedatutakoa betetzea. GHK ez da inolaz ere erantzukizun horren mendean egongo.

31 LANEN ZUZENDARITZA

Kontratistak GHK-k onartutako Lan Egitarauaren arabera eta kontratuaren dokumentuen interpretazio teknikoa egin ondoren GHK-k idatziz ematen dizkion jarraibideen arabera egingo du asistentzia; horiek betetzea nahitaezkoa izango da kontratistarentzat.

32 KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

32.1 Izendapena

Zerbitzuak hasi aurretik, kontratistak bere ordezkaria izendatu beharko du GHKren aurrean, bere eskaintzan aurreikusitakoaren arabera, eta hark hartuko ditu bere gain Baldintza Teknikoen Agirian xedatutako betekizunak. Kontratazio-organoak onartu egin beharko du pertsona izendatua.

32.2 Eginkizunak

Kontratistaren ordezkariaren oinarrizko zereginak dira:

- Kontratistaren ordezkaria izatea kontratuaren betebeharretan, kontratu honen xede diren zerbitzuak betetzeari buruz.
- Zerbitzuen burutzapena antolatzea eta GHKtik jasotzen dituen aginduak interpretatu eta gauzatzea.
- GHKri laguntzea zerbitzuen prestazioan gertatzen diren arazoak konpontzen.

- Asistentziaren akatsei aurre hartzea, eta zuzenketa edo prebentzio neurriak proposatzea.
- Kontratuaren xede diren prestazioak betetzeko giza baliabideak eta bitarteko materialak antolatzea.
- Lanak optimizatzea.

33 ZERBITZUAK BURUTZEKO ARAUBIDEA

1. Kontratatik zerbitzuak burutuko ditu kontratuaren dokumentuetan ezarritako xedapenak orpoz orpo jarraituta, eskatu beharreko arreta erabiliaz beti, eta GHK-k kontratistari ematen dizkion jarraibideak aintzat hartuta.
2. Gauzatze-lanetan, osorik bete eta errespetatu beharko dira aplikagarri diren arau tekniko guztiak. Kontratasta behartuta dago une bakoitzeko legeria betetzera, eta, berariaz, lan osasunaren eta segurtasunaren esparruan, eta ingurumen alorrean diren araudiak betetzera.

Arau horiek ez betetzeagatik agintari eskumendunek zigorrik ezarriz gero, kontratatik bere gain hartu beharko ditu, eta GHK-k zerbitzuen ordainketak eten ditzake haiek ordainduak izan direla egiaztatu arte, etete horrek kontratistaren aldeko interesik sortu gabe.

3. Zerbitzu prestazioan erabili behar diren ibilgailu, material, ekipo, elementu eta makinek bete egin beharko dituzte kontratu dokumentazio guztian eta indarrean dagoen araudi aplikagarrian exijitzen diren kalitateak eta ezaugarriak.
4. Kontratatik aukera izango du zerbitzuak bere bitartekoez emateko edo bitarteko horietako batzuk enpresa gaitu batekin azpikontratatu emateko, betiere bere eskaintzan aurreikusiarekin bat eta Agiri honetako 24.3 klausulan ezarritako baldintzak betez.
5. Ordezkariek edo kontratatik ezin izango dute aldakuntzarik ezarri eman beharreko zerbitzuetan, aldez aurretik onartuak izan gabe.

34 KONTRATISTAREN BITARTEKO MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK

Kontratatik beharrezko eta egokitzat jotzen dituen bitarteko materialak eta giza baliabideak xedatu behar ditu eman beharreko zerbitzuetara, lana eskaintako epearen barruan eta eskaintzak ezarritako kalitate baldintzetan bukatu ahal izateko.

Zerbitzuak bete ahal izateko bitarteko materialak eta giza baliabideak xedatzea izango da kontratuaren funtsezko beharkizun bat. Hori ez betetzea kontratua indargabetzeko arrazoia izango da.

35 GALDU-GORDEAN JARDUTEA ZERBITZUEN BURUTZAPENEAN

1. Zerbitzuak burutzeko unean kontratistak galdu-gordean jardungo du.
2. Zerbitzuak ematean kontratistaren ardurapeko berandutzerik gertatzen bada, Agiri honetako 41. eta 43. klausuletan ezartzen diren zigor eta indargabetze araubideen arabera jokatu da.

36 DESADOSTASUNAK EBAZTEA ZERBITZUAK BURUTZERAKOAN

1. Kontratatari ordainketa egin aurreko ikuskapenak eta kontrolak egiterakoan, GHK-k ikusten badu zerbitzua ez dela egiten ari kontratuaren dokumentuetan xedatutakoaren arabera, espediente bat zabalduko da egoeraren berri jasotzeko, desadostasuna sortu duten zerbitzuen zehaztasunak eta haien arduradunaren identifikazioa bildurik, eta desadostasun hori ixten den bitartean egiten diren urrats guztiak ere bildurik.
2. Espedientea zabaldu ondoren, kontratistaren ordezkariari aurrez entzunik, GHK-k erabakiko du zein neurri zuzentzaile behar den, eta noiz gauzatu, aldez aurretik behar bezala dokumentaturik. Neurri zuzentzaile horiek gauzatzen direnean eta atzemandako irregulartasunak behar bezala zuzenduak izan direla ikusten duenean GHK-k, desadostasuna kendu egingo du, eta espedientea itxi.
3. Espedienteak erakar dezake zigorrak ezartzea kontratatari, Agiri honen VII. Kapituluan xedatutakoaren arabera.

37 DOKUMENTAZIOA KONTROLATU ETA EMATEA

37.1 Dokumentazioaren kontrola

1. Dokumentuen artxibatze sistema eta kontrol informatikoa ezarri eta atxiki beharko du kontratistak, kontratu hau burutzeko urrats guztietan dokumentuen identifikazioa, berrikuspena, egoera eta kokapena ezarria dela bermatuta.

Kontratistaren dokumentuen kontrol sistemak bere barne hartu behar ditu, baita ere, azpikontratisten dokumentuak.

2. Kontratuaren dokumentazioa identifikatzeko sistema bat garatu eta atxiki beharko du kontratistak, lan guztietan txertatzeko, kontratua burutzeko urratsetan kontratistak berak eta GHK-k dokumentazioaren kontrola izan dezaten.
3. Kontratistak ezartzen duen artxibatze sistema informatikoak esku eta bermea eman behar dio GHKri dokumentazio guztia arin eta osorik eskuratu ahal izateko.

37.2 Dokumentazioa ematea

1. Kontratista behartuta dago, zerbitzuak burutzerakoan, kontratuaren xedeen barne dagoen dokumentazio guztia ematera, osorik eta zuzen, barne direlarik kontratua burutzerakoan GHK-k onartzen dituen aldakuntza eta hobekuntzak, Agirian eta kontratuaren gainerako dokumentuetan xedatutakoaren arabera.
2. Kontratatik dokumentazio hori guztia garatu behar du, kontratuari aplikagarri zaizkion kode eta arau guztiak eta indarrean dagoen legeria aintzat harturik.
3. Zerbitzuen prestazioa amaitzen denean, sortutako dokumentazio tekniko guztiaren kopia bat eman behar dio kontratatik GHKri, barne direlarik administratibotik eskuratutako baimen, lizentzia eta gainerako ahalmen emateak.

38 BERME ALDIA

1. Zerbitzuen berme aldia 6 HILABETEKOA izango da, zerbitzuak gauzatzen diren unetik hasita.
2. Berme aldian zehar, kontratista behartuta dago kontratua behar bezala eta guztiz gauzatua izan dadin beharrezko konponketa eta bestelako guztiak egoki zertuko direla ziurtatzeko ekintza guztiak egitera. Halako ekintza horiei lotutako kostu guztiak kontratistaren kargu izango dira.

39 BERME EPEAREN AMAIERAKO ZIURTAGIRIA

1. Berme epea betetzeko azken hamabost (15) egunen barruan, GHK-k izendatutako teknikariak edo teknikariek zerbitzu prestazioari eta prestazio horren eta kontratuko dokumentazioan jasotako zehaztapenen arteko egokitzapenari buruzko txosten bat erredaktatuko dute. Txostena aldekoa bada, eraturako behin betiko bermea itzuliko da, kontratuaren behin betiko likidazioa egingo da eta, hala dagokionean, ordaintzeko dauden obligazioak ordainduko dira.
2. Txostena ez bada aldekoa eta ikusitako akatsak zerbitzu prestazioko gabeziek eraginak baldin badira, eta gabezia horiek ezin bazaizkio GHKri leporatu eta honentzat ondorio ekonomikorik izan badezakete, GHK-k izendatutako teknikariek beharrezko aginduak emango dizkiote kontratistari, GHKri dagokion konpentsazioa eman diezaion, edo egoki dakizkiokeen erantzukizunak estal ditzan.
3. Epe hori igaro eta gero kontratatik ez baditu agerian lagatutako akatsak zuzendu, ez badio GHKri dagokion konpentsazioa eman, edo ez baditu egoki dakizkiokeen erantzukizunak estali, horren guztiaren akta egingo da atzera, eta GHK-k kontratua deuseztatu ahal izango du, kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiak daudelako, bermea konfiskatuz gainera. Horretaz guztiaz gain, dagozkiokeen kalte-ordainak ere sor daitezke. Akatsak konponduz gero, klausula honetako lehen paragrafoan aurreikusten den moduan jardungo da.

40 KONTRATUA HARTZEA

Ulertuko da kontratistak bete egin duela kontratua, prestazio osoa kontratuko baldintzei jarraiki eta GHK-k eskatu bezala gauzatzen doan neurrian.

GHK-k zehaztuko du kontratistak emandako prestazioa egokitzen zaien horretarako ezarritako preskripzioei eta, hala dagokionean, kontratatutako prestazioak ematea eta harreran ikusitako akatsak konpontzea eskatuko du, hain zuzen ere SPKLTBren 307. artikulua eta HAKLEOren 203. artikulua ezartzen duten moduan.

Egindako lanak ez zaizkionean egokitzen kontratatu den prestazioari, kontratistari egozteko moduko akatsen ondorioz, berariaz utziko da erasota, eta kontratistari aginduak emango zaizkio akatsak konpon ditzan. Konpontze-lan hori egiten ez denean, GHK-k kontratistaren kontura utziko du, ordaintzeko obligaziotik salbuetsirik geratuz edo ordaindua berreskuratzeko eskubidea bereganatuz bide batez.

Sei hilabeteko berme epea ezartzen da, harrera datatik kontatzen hasita, kontratua amaitu eta likidatu ondoren, luzapenak barne.

Berme epean zehar egiaztatzen bada egindako lanetan akatsak daudela, kontratazio-organoak eskubidea izango du akats horiek konpontzea erreklamatzeko kontratistari.

Berme epea amaitzen bada GHK-k aurreko apartatuetan aipatzen diren eragozpenak jarri edo salaketa egin gabe, erantzukizunetik libre geratuko da kontratista, emandako prestazioari dagokionez.

Kontratistak entzuna izateko eskubidea izango du, kontratatutako prestazioa betetzeari loturik formulatzen diren oharrei dagokienez.

V. KAPITULUA: ZIGOR ARAUBIDEA

41 EZ-BETETZEAK

Esleipendunak ez dituenean betetzen kontratuko alderdiak, GHK-k dagozkion zigorrak ezarriko ditu. Ez-betetzeak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

41.1 Ez-betetze oso larriak

Ez-betetze oso larriak izango dira honakoak:

- Zerbitzu prestazioan hasteko berandutza, aurreikusitako datatik hilabetetik gorakoa, ezinbesteko eta GHK-k onartutako arrazoiak direnean izan ezik.
- Zerbitzu prestazioa geratzea edo etetea, ezinbesteko eta GHK-k onartutako arrazoiak direnean izan ezik.

- Zerbitzuko gorabehera bat salatu eta horretan esku ez hartzea edo gorabehera ez zuzentzea.
- Zerbitzuen ordena, forma eta erregimenari dagokionez GHK-k emandako aginduen aurreko desobedientzia, eta, oro har, zerbitzu prestazioa erregulatzen duten eta GHK-k zehazten dituen arauen aurreko desobedientzia.
- Enpresa kontratatzaileak, kasu honetan GHK-k, eska ditzakeen datu eta informazioak ezkutatzea, edo gezurrezkoak ematea, edo datu eta informazio horiek ezarritako protokolo edo egutegiaren barnean ez ematea.
- Konprometitutako kamioi kopurua ez edukitzea.
- Fluxu desberdinak garraiatzeko garbiketa protokoloak ez betetzea.
- Hiru ez-betetze larri metatzea.

41.2 Ez-betetze larriak

Ez-betetze larriak izango dira honakoak:

- Zerbitzu prestazioaren uneko berandutze sistematikoa.
- Eskatutako ordutegiak ohiz ez betetzea, eskainitako bitarteko materialak ez erabiltzea edo material horiek kontserbazio egoera txarrean egotea.
- Erabiltzen diren giza baliabideak edota bitarteko materialak eskainiaren azpitik egotea, kopuruz edo kalitatez.
- Fluxu berari dagokionez, garbiketa protokoloak ez betetzea.
- Jarduteko epeak ez betetzea, justifikaziorik gabe, eta konprometitutako aldizkako informazioa behar den unean ez aurkeztea.
- GHKren zerbitzu teknikoekiko lankidetzakaxkarra.
- Hiru hutsegite arin metatzea.

41.3 Ez-betetze arinak

Ez-betetze arinak izango dira zerbitzua gauzatzeko ezarritako denborak ez betetzea eta aurretik aurreikusi ez diren bestelako egoera guztiak, agiri honetan ezarritako baldintzen kalteko baldin badira neurriren batean.

Kasuan kasuko zigorraz aparte, hondakina (kasu bakoitzean zehazten dena) kargatzeko mugimenduak egiteko egokiera denean zerbitzu efektiboko ordutegiak ez betetzeak berekin ekarriko du automatikoki murriztea GHK-k esleipendunari ordainduko dion zerbitzuagatiko prestazio ekonomikoa. Murrizten den zenbatekoa kalkulatzeko, GHKrekin kontratatutako zerbitzu integralaren orduko kostua hartuko da oinarri, horretan sarturik emandako zerbitzuaren ordu bakoitzeko kostu guztiak.

42 ZIGORRAK

42.1 Zigor araubidea

- Ez-betetze arinek 300 eta 1.000 euro bitarteko zigor bat ezartzea ekarriko dute.
- Ez-betetze larriek 1.001 eta 10.000 euro bitarteko zigor bat ezartzea ekarriko dute.
- Ez-betetze oso larriek 10.001 eta 60.000 euro bitarteko zigor bat ezartzea ekarriko dute.

Hiru ez-betetze larri metatzen direnean, GHK-k eskubidea izango du esleipendunarekiko kontratu harremana eteteko.

Era berean, zerbitzua eteten bada edo zerbitzuari eragiten dioten irregulartasun larriak gertatzen badira, GHK-k eskubidea izango du esleipendunarekiko kontratu harremana eteteko, eta hirugarren batzuegana jotzeko kontratatutako zerbitzua bermatzearen. Kasu honetan GHK-k eskubidea izango du bere ustez bidezkoak diren lege ekintzak abian jartzeko.

Esleipendunak egin dituzkeen ez-betetzeen larritasun maila eta horiei dagokien zigorra eta zenbatekoa zehaztea GHKren zerbitzu tekniko eta administratiboen eginkizuna da. GHK-k ezarritako zigorraren jakinarazpenaren ondotiko epean GHK-k enpresa esleipendun eta zigortuari egiten dizkion ordainketetatik kenduko dira zenbateko horiek.

42.2 Zigorak mailakatzea

GHK-k zigorak ezartzen dituenean, egokitasun bat gorde beharko du, ez-betetzearen larritasuna eta ezarritako zigorra pareko izan daitezen, mailakatze horretan irizpide

hauei jarraituz: (i) ez-betetze mota; (ii) nahita egina izatea; (iii) sortutako kalteen izaera; (iv) urtebeteren buruan izaera bereko ez-betetze bat baino gehiago metatzea; eta (v) kontratistak eskuratutako irabazia.

42.3 Zigorrak eta isun hertsatzaileak eguneratzea

Agiri honetan aurreikusten diren zigorren eta isun hertsatzaileen zenbatekoa urtero eguneratuko da, estatuko KPIrekin bat, edo autonomia erkidegokoarekin bat berau bada baxuena.

VI. KAPITULUA: KONTRATUA IRAUNGITZEA

43 KONTRATUA IRAUNGITZEA

Zerbitzu kontratu hau betetzen denean edo suntsiarazten denean iraungiko da.

43.1 Kontratua betetzea

Kontratua iraungiko da kontratistak guztiz betetzen dituztenean kontratu honen xede diren prestazioak, kontratuaren dokumentuetan diren baldintza guztiak errespetatuz eta GHK-k onetsirik, Agiri honetako 4. klausulan xedatutako epearen barruan edo, behar izanez gero, epe horren gainean erabakitzen diren luzapenen edo murrizpenen barruan.

43.2 Kontratua suntsiaraztea

Zerbitzu kontratua suntsiarazteko arrazoiak SPKLTBren 223. eta 308. artikuluetan ezarritakoak dira eta, oro har, kontratu obligazioen ez-betetze oro, Kode Zibileko 1.124. artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

Kontratua aurrez suntsiarazteak hainbat eragin izango ditu, honakoak:

- Alderdien arteko akordio batez suntsiarazten denean, alderdien eskubideak GHK-k eta kontratistak balioz hitzartuaren arabera izango dira.
- Kontratua kontratistaren erruzko ez-betetze batengatik suntsiarazten denean, GHKri ordaindu egin beharko dizkio eragindako kalteak, konfiskatutako bermearen zenbatekoa gainditzen duten zatian; edonola ere, kontratuaren prezioaren gaineko zigor klausula bat ezarriko da.

Klausula honetan aurreikusten diren suntsiarazte kasuetako edozeinetan, suntsiarazteak automatikoki izango du indarra, horretarako baldintza bakarra GHK-k kontratistari egiten dion jakinarazpen frogagarria izango baita.

Klausula honetan aurreikusten diren arrazoiengatik zein legez bidezkoak izan daitezkeen beste arrazoi batzuegatik kontratua suntsiaraztean ondoriozta daitezkeen erantzukizun ekonomikoak kontratua egiaz suntsiarazi eta dagokion dokumentazioa eman ondoren likidatuko dira; eta GHK-k kontratua gauzatzen jarraitu ahal izango du.

Suntsiarazte kasu guztietan, kontratistak eskubidea izango du, printzipioz, benetan gauzatu dituen lanengatik prezio osoa jasotzeko.

Kontratua kontratistari egozteko moduko arrazoi batengatik suntsitzen denean, kontratuaren prezioaren % 20aren baliokideko kopuru metagarri bat sortuko da GHKren alde, bidezkoak diren kalteengatik ordainez gain inolaz ere.

Kopuru horiek biak behin betiko bermetik eta kontratistari ordaintzeko dagoen prezioetik kenduko dira eta, hala dagokionean, soberakinari dagokion erreklamazioa egingo da.

Klausula honetan aurreikusita ez dauden kasuetan, SPKLTBren 224., 225. eta 309. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da.

ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

..... jaunak/andreak (NAN zk.:)
bere izenean, edo, hala badagokio, enpresaren
(IFK:) (adierazi ordezkatzeko ahalmena: administrari bakar,
ahaldun) eta ordezkari diharduela,

ADIERAZTEN DU

- Bai berak bai ordezkatzeko duen enpresak ahalmena dutela Herri Administrazioarekin kontratuak egiteko. Izan ere, jarduteko gaitasun osoa dute, eta ez daude sartuta **SPKLTBren 60. artikuluan** jasotako inolako egoeratan. Bereziki eta berariaz adierazten du ez duela zigor irmorik jaso laneko segurtasun eta osasun gaietan arau-hauste oso larriarik egiteagatik, SPKLTBren 60.1. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela, **Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorren 13. eta 14. artikuluetan** (urriaren 12ko 1098/2001 ED) adierazitako irismenarekin.
- **Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dagoela**, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, eta ez duela bajarik eman zerga horren matrikulan.

Eta hala jasota gera dadin, eta egokiak diren ondorioak izan ditzan, erantzukizunpeko adierazpen hau sinatzen du Hernanin, 2016koaren(e)an.

Izp.: (ENPRESAREN ZIGILUA)

II. ERANSKINA. PROPOSAMENA GHKren SARRERA ERREGISTROAN ENTREGATZEKO EREDUA

..... jaunak/andreak (NAN zk.:)
bere izenean, edo, hala badagokio, enpresaren
ordezkari diharduela (IFZ:; helbidea:
.....; fax zk.:, eta posta elektronikoaren
helbidea:),

ADIERAZTEN DU:

.....ko (ordua) direla, bere proposamena ematen duela
**“SASIETA MANKOMUNITATEKO HIRI HONDAKINAK ZABORTEGIETARA ETA
TRATAMENDU PLANTETARA GARRAIATZEKO ZERBITZURAKO
KONTRATUA”**ren lizitaziorako kontratazio espedienterako.

Hernanin, 2016koaren(e)an.

Izp.:

(aurkezlearen sinadura)

III. ERANSKINA. ATZERRIKO ENPRESEN ADIERAZPENA

“..... jauna/andreak (helbidea:, NAN:, telefonoa:, posta elektronikoa:), gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoak ditu, bere izenean ari da (edo honen ordezkartzan:, helbidea:, eta NAN edo IFK: -pertsona fisikoa edo juridikoa den-), eta GHKren gonbidapena jaso duelarik publizitadedun prozedura negoziatuaren bidez zertuko den **“SASIETA MANKOMUNITATEKO HIRI HONDAKINAK ZABORTEGIETARA ETA TRATAMENDU PLANTETARA GARRAIATZEKO ZERBITZURAKO KONTRATUA”**ren lizitazioan parte hartzeko,

ADIERAZTEN DU

- 1.- Kontratutik zuzenean edo zeharka etor litezkeen gorabehera guztietan Espainiako edozein motatako epaitegi eta auzitegien mende jartzen dela, eta, hala dagokionean, atzerrian egokitu dakioken foru jurisdikzionalari uko egiten diola.
- 2.- Batasunetik kanpoko atzerriko enpresa bat izanez gero, Espainian sukurtsal bat irekita duela egiaztatzen duela, ahaldunak edo ordezkariak izendatzen dituela bere jardueretarako, eta Merkataritzaren Erregistroan inskribatuta dagoela.
- 3.- Konpromisoa hartzen duela dagokion dokumentazioa gaztelaniara edo euskarara era ofizialean itzulita aurkezteko, HAKLEOren 23. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Eta hala jasota gera dadin, eta egokiak diren ondorioak izan ditzan, erantzukizunpeko adierazpen hau sinatzen du _____n, 2016ko _____aren _____(e)an.

Izp.: _____

IV. ERANSKINA. JAKINARAZPENAK BIDALTZEKO POSTA ELEKTRONIKOKO HELBIDEA(K)

.....
jaunak/andreak, adinez nagusia bera (NAN zk.:; helbidea:
.....),
..... -ren ordezkari diharduela (IFZ:
.....; helbidea:),

AZALTZEN DU

Ondorio guztietarako eta, bereziki, dokumentazio administratiboko akatsak konpontzeko eskaerak jasotzearen, posta elektronikoko kontu hau(ek) d(it)uela:

(bat baino gehiago adieraz daiteke)

Aipatutako posta elektronikoko helbide horietara dokumentazio eskaerak edo informazioa bidaltzen direnean kontaktzen hasiko dira Agiri honetan xedatzen diren epeak, zehazki baldintza administratiboaren agirian dokumentazio administratiboaren hutsegiteak zuzentzeko epea.

Eta hala jasota gera dadin, eta egokiak diren ondorioak izan ditzan, erantzukizunpeko adierazpen hau sinatzen du _____n, 2016ko _____aren _____(e)an.

Izp.: _____

V. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

“..... jauna/andrea, helbidea:
....., NAN:
....., telefonoa:, posta elektronikoa:
Gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoak ditu, eta bere izenean ari da (edo honen ordezkaritzan:, helbidea:
....., eta NAN edo IFK:
..... -pertsonea fisikoa edo juridikoa den-), eta GHKren gonbidapena jaso duelarik publizitadedun prozedura negoziatuaren bidez zertuko den **“SASIETA MANKOMUNITATEKO HIRI HONDAKINAK ZABORTEGIETARA ETA TRATAMENDU PLANTETARA GARRAIATZEKO ZERBITZURAKO KONTRATUA”**ren lizitazioan parte hartzeko,

ADIERAZTEN DU:

- 1) Konpromisoa hartzen duela zerbitzua honako prezio unitario hauen arabera egiteko (BEZ kanpo):

HONDAKIN MOTA	ERREFUSA	BIOHONDAKINA			ERREFUSA+BIOHONDAKINA		
	1. PREZIOA	2. PREZIOA	3. PREZIOA	4. PREZIOA	5. PREZIOA	6. PREZIOA	7. PREZIOA
DESTINOA	GIPUZKOAKO ZABORTEGI ETA PLANTAK	LAPATX+EP ELE ETA GIPUZKOAK O PLANTAK	CAPARROS O	FUNES	ALDAKORRA 100 KM ARTE	ALDAKORRA 200 KM ARTE	ALDAKORRA 400 KM ARTE
GEHIENEZKO PREZIO UNITARIO	___€/tn/km	___€/tn/km	___€/tn/km	___€/tn/km	___€/tn/km	___€/tn/km	___€/tn/km

Era gehigarrian, egokia den BEZa fakturatuko da.

- 2) Prezioaren barruan sartuta daudela kontzeptu guztiak, eta baita edozein zerga-esparrutako gainerako zerga, gastu, tasa eta arielak ere, kontratistaren industri mozkinaz gain.
- 3) Baldintza Ekonomiko eta Administratiboen Agiria, eta kontratu hau arautuko duen Baldintza Teknikoen Agiria ezagutzen dituela, eta berariaz bere gain eta ontzat hartzen dituela.
- 4) Ordezkatzen duen enpresak indarrean dagoen zergei buruzko eta Gizarte Segurantzari buruzko araudiak ezarritako baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen dituela.

Hernanin, 2016koaren(e)an.

Sinadura